


2025-10-17 BARIKUA / 1.038. ZENBAKIA / 23. URTEA
DURANGALDEKO ASTEKARIA ANBOTO.ORG TOKIKOM



Durangoko Azoka 'Kulturaren Jaialdia' hartzeko prest

Durangoko Azokaren aurtengo edizioa abenduaren 5etik 8ra egingo da, Landako Gunean zein udalerriko beste hainbat lekutan. Azokaren 60. urteurrena izango da aurtengoa. Iratxe Reparazek sortu du iruditegia / 25



Aramotz mendi lasterketak eta martxak 300 parte hartzailetik gora batuko dituzte zapatuan
Zornotzako lasterketa Durangaldeko Kopako azken-aurreko hitzordua izango da / 29

Gatibu, Ødei, patata tortillak eta mozarroak nagusi Durangoko jaien bigarren asteburuan / 4



EZKONTZA GEHIGARRIA / 11



BELAUNALDI ERRELEBOA BASERRITARREN KOOPERATIBAN

Hiru hamarkada luzean Dibako lehendakaria izandako Javier Olaso abadiñarrak Iñigo Etxebarria iurretarrari pasatu dio lekukoa. Kooperatibak sasoian sasoira egokitzen jarraituko duela azpimarratu du Etxebarriak. / 2-3

Javier Olaso eta Iñigo Etxebarria.



Iñigo Etxebarria (eskuman) Javier Olasoren lekukoa hartu du Diba kooperatibako zuzendaritzan.

"Diban gizarteko eskaeretara egokitzen jakin dugu"

JAVIER OLASO ETA IÑIGO ETXEBARRIA DIBA KOOPERATIBAKO KIDEAK

Belaunaldi erreleboa egon da Diba baserritarren kooperatiban. 38 urtean ardura postuan egondako Javier Olaso abadiñarrak Iñigo Etxebarria iurretarrari pasatu dio lekukoa

Ekaitz Herrera LEHEN SEKTOREA

Hanburgesa jatetxe multinazionalak daude Dibaren egungo egoitzaren ondoan, eta autokarabanan aparkalekua orain urte batzuk arte egoitza izandakoan. Baten batek pentsatu dezake, akaso, munduaren bilakaera ulertzeko balio dezakeela Diba kooperatibaren inguruak. Batek daki. Argi dagoena da sasoiak zein kokalekuak aldatu, Durangaldeko baserritarren kooperatibak sendo iraun duela denboran, betiko norabidean tinko,

baserritarrei beharrezko materiala eskaintzen. Gainera, Dibak presidente berria du maiatzetik. Iñigo Etxebarria iurretarrak Javier Olaso abadiñarraren lekukoa hartu du oraintsu, azken horrek ardura postuan 38 urte

"SALEROSKETA GUNEA BAKARRIK EZ, BASERRITARRON ELKARGUNEA ERE BADA DIBA"

egin eta gero. Eta ez hori bakarrik. Lehen sektoreko belaunaldi berria batu da kooperatibako kudeaketa taldera.

Javier, 38 urtean Dibako arduradun nagusia izan eta gero, erreleboa etorri da orain.

Javier Olaso: Kooperatiba sortu zenetik nago Diban, 1987tik. Halako azpiegitura baten falta igartzen genuen, eta hainbat baserritar batu ginen kooperatiba sortzeko. Gatxa izan zen hasiera, eta sektoreko hainbat laguni eskerrak hasi genuen

bidea, Markina-Xemeingo Miba eta Arratiako baserritarren CAVA kooperatibak lagun. Halantxik sortu genuen Diba. Hasieran 38 bazkide ginen; 80 baino gehiago gara gaur egun. Eta 38 urtean bost presidente pasatu dira hemendik; Luis Gorroño lehenengo, ni gero, Juan txu Elorriaga ondoren, eta neu berriro, harik eta Iñigo Etxebarriak erreleboa hartu duen arte. Kooperatibaren egoera oso ona da. Ondo saltzen dugu eta erreferentia gara Durangaldeko baserritarrentzat. Saltzen dugunaren erdia pentsua da gutxi gorabehera. Gainerako erdia materiala, itxiturak, zoosanarioak, plastikoak eta halakoak dira.

Iñigo, erronka handia da Olasoren lekua betetzea?

Iñigo Etxebarria: Ardura handia da hainbeste urtean hainbeste jende egindako lanari jarraipena ematea, eta horretan asmatzea erronka ere bai. Hala ere, talde polita gabiltza lanean, eta horrek ilusioa ere badakar. Javierrek eta gainerakoek egindako bidea bikaina izan da. Ez zeukaten ezer, eta ezerezetik Diba sortu zuten. Elkarlanean egin zuten hori guzti hori. Txalotzekoa da hainbeste urtean baserritarren alde egin duten lana.

Gainera, ez zaude bakarrik. Talde berria dago kudeaketa taldean.

I.E.: Belaunaldi gaztea gara. Honako hauek osatzen dugu taldea: Alazne Intxauspek (Orozketako berdura ekoizlea), Ana de la Mazak (Garaiko kontserbak eta garagardoak), Aitor Urienek (Sagastako artzaina, gaztagilea), Joseba Bazetak (Arrazolako ortuari ekoizlea eta artzaina), Urdaspal Alberdik (Iurretako ortuari ekoizlea), Kepa Agirre-goikoak (Etxanoko jogurt ekoizlea) eta nik. Ekoizpen txikian eta merkaturatze zuzenean eragin gura dugu. Dena dela, kooperatibak ateak zabalik ditu proposamen eta ekoizle berriak hartzeko.

Sektorea asko aldatu da 38 urte hauetan?

J.O.: Bai, mordo. Lehen, kasurako, esplotazio ugari zegoen esnea ekoizteko; orain, oster,

oso gutxi dago. Esku bakarragaz zenbatu ditzakezu. Eta okela arloan ere asko aldatu da kontua. Txahal gutxi dago, oso gutxi. Izan ere, errapetik kendu eta lasterrera kanpora saltzen dira, prezioa ona delako eta pentsuagaz gizentzea garestiagoa delako. **I.E.:** Orain, Maroko iparraldera ere saltzen dira hemengo txahalak. Izan ere, orain urte batzuk lokala zena globala bihurtu da, eta halantxik da dena gaur egun. Ez abeltzaintzan edo nekazaritzan bakarrik, arlo guztietan baino. Diban gizarteak eskatu duen horretara egokitzen jakin dugu. **J.O.:** Gazteria ere badabil sektorean, baina oso gutxi dira. Lehen, baserri bakoitzean esplotazioen bat zegoen, eta esplotazioa ez zeukanak ortua edo animaliak izan zitzakeen auto-kontsumorako. Orain, apenas dago halakorik.

Zerk eragin ditu aldaketa horiek guztiak?

J.O.: Esango nuke 90eko hamarkada bueltan hasi zela kontua goitik behera aldatzen, hau da, Europar Batasunean sartu eta segituan. Ordura arte, baserri mundua bizi-bizirik zegoen. Esne-banatzaileak etxe atarira joaten ziren sasoiak zen, baserri txikiak bizi-bizirik zeudeneko. Eta zer gertatu zen? Europak prezioak txikitzea ekarri zuela eta horrek ekoizle txikiei eragin zuela. Multinazionalen etorreragaz igarri genuen hori.

I.E.: Zuzeneko merkatutik eredu industrialera bideratu zen ekoizpena eta horrek galera eragin zuen irabazietan.

J.O.: Herrietako denda txikiak ere galtzen dabilta. Oso gutxi geratzen dira.

Abadiñoko Astola auzoan egin zenuztuzten lehenengo urteak. Han zegoen Dibaren saltokia.

J.O.: Bai, han hasi ginen. Alokairuan geunden lehen, eta jabetzan orain. Bada zeozer. Zeozer ganoraz egin dugulakoan nago. Gazte gutxi dago baserri-tik bizitzen, baina funtsezko zeozer izango dute hemen. Pozik joango naiz lehendakaritzatik. Nahikoa behar egin dugu hemen.

Zer litzateke Durangaldea Diba barik?

I.E.: Hau salerosketarako puntu bat da, baina kooperatiba ez da hori bakarrik. Hau komunitate bat ere bada, baserritarren elkargunea. Gure kezkak, arazoak eta pozak partekatzen ditugu.

"OLASOK ETA BERE INGURUKOEK EGINDAKO LANA ITZELA DA, HUTSETIK HASI ZIREN"



Genozidioaren kontrako ahotsak eskualdeko kale eta lantokietan

Eguaztenean, langileek, sindikatuak eta herritarrek lanuzteak egin zituzten Palestinagazko elkartasunez

Ekaitz Herrera LANUZTEAK

Beharginak, sindikatuak, ikasleak zein irakasleak. Eta berdin-berdin fabrikak, ikastetxeak, egoitzak zein administrazio publikoa. Eguaztenean, urriak 15, Palestinaren aldeko lanuzte orokorrak egin ziren Hego Euskal Herrian, eta Durangaldean ere herritar ugari irten zen kalera. Beharginak lantokien aurrean mobilizatu ziren, 11:00etan. Administrazio publikoko langileak, adibidez, Zornotzako, Durangoko, Berrizko zein Abadiño-ko udaletxeen aurrean mobili-

zatu ziren. Egoitzetako langileek ere euren zereginak utzi zituzten Palestinari elkartasuna adierazteko. Hori izan zen, besteak beste, Durangoko Joxemiel Barandiaran egoitzako langileen kasua. Eta industriako langileak, Elorriotik Zornotzara zein Mallabitik Otxandiora, enpresa atarietara irten ziren. Abadiño-ko Astola auzoan, esate baterako, AL-KO, Tata Steel Layde, Rothenberger eta Estamcal lantegietako beharginek lanuzte bateratua egin zuten. Lau fabriketako beharginak Durango eta



Durangoko udal plaza bete egin zen eguazten arratsaldean.

Zelaieta arteko errepidean mobilizatu ziren. Sindikatuetaordezkariak argi utzi zuten genozidioa eta negozioa ez direla bateragarriak. Arratsaldean herritarren mobilizazioek hartu zuten erreleboa. Eskualdeko

herrietan 19:30ean mobilizatu ziren Palestinari elkartasuna adierazteko, genozidioari amaiera ematea eskatzeko eta Israel-egaz dauden hitzarmen ekonomiko guztiak ezerezteak eskatzeko.

BERBALDIA

Taher Aliren berbaldia Iturri kultur etxean



E.H. ELORRIO

Taher Ali palestinarra berbaldia emango du datorren astelehenean, urriaren 20an, Elorrioren. Ateneo Palestino elkarteak 2023ko urriaren 7tik honako bilakaera eta Donald Trumpen plana aztertuko ditu elorriarren aurrean. Jardunaldia Iturri kultur etxean izango da, 18:30ean. Berbaldia Palestinarekin Elkartasuna dinamikak antolatu du.

Israelekin apurtzeko eskaera ugari



Suhiltzaileak. lurretako suhiltzaileen baseko kideek egoitza pareko biribilgunera eraman zuten protesta, autobideko sarrerara.



Industria. Astolako Estamcal enpresako behargin hauek ez zuten dudarik izan: elkartasuna adierazi zieten Palestinari eta hango langileriari.



Elkarretaratzeak. Sindikatuak Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean egin zituzten manifestaziorik jendetsuenak. ELAK Durangon ere antolatu zuen protesta.



Administrazioa. Israelegaz hartu-eman komertzialak eteteko eskatzeaz gainera, hartu-eman instituzionalak etetea ere eskatu zuten. Irudian, Berrizko udal langileak.



Trenak. Eusko Trenen Lebarioko kotxeretako langileek ere bat egin zuten lanuzteagaz. Irudian, CAF Turnkey and Engineering enpresako beharginak.



Egoitzak. Durangoko Joxemiel Barandiaran egoitzako kideak lantoki atarian. Genozidioaren kontura negoziatorik ezin dela egin azpimarratu zuten.

Gatibu Durangaldean ikusteko azken aukera

Rock talde gernikarrak abenduaren erdialdean agurtuko ditu eszenatokiak, Barakaldoko BECen. Data hori baino lehenago, kontzertu bi emango ditu Euskal Herrian. Urepelen izango da bata, eta Durangoko jaietan bestea, barikuan, Ezkurdin

Ekaitz Herrera DURANGO

Joan zen asteburu luzea atzean utzita, durangarrek zoramenerako egun gehiago dute aurretik. Orain ere, makina bat ekitaldi, animazio eta musika egongo da herriko kaleetan. Baina, denen artean, zalantzarik barik, Gati-buren kontzertuak batuko du jenderik gehien. Alex Sardui eta bere mutilak Ezkurdiko eszenatokia igoko dira barikuan, hilak 17, 23:00etan, durangarren eta bisitarien gozamenerako. Eta eguraldi iragarpenak onak diren arren, *Euritan dantzan* ibiliko dira, *Bang-bang txik-txiki bang-bang*. Maitale ezagutu berriek *Musturrek sartunde* ikusiko dute kontzertua beharbada, *Bixotza suten*. Eta parrandazalerik alprojenak *Besoak zabalik* ibiliko dira *Bizitzeko gogo* eztarria urratu beharrean abesten, *Eztanda egin arte*. Eta horren ondoren, atsedena, agurra. Eta malkoren bat edo beste ere bai, talde gernikarra bere agur biran murgilduta



Alex Sardui Gatibuko abeslaria, 2018ko 40 Minutu Rock Jaialdian. 40 MINUTU ROCK

dagoelako, eta barikukoa izango delako, hain zuzen ere, Gatibu eskualdean zuzen-zuzenean ikusi ahal izateko azken aukera. Behin Ezkurdi agurtuta, Nafarroa Behereko txoko txiki horretara joango dira, Urepelera, eta Madril

eta Bartzelona bisitatu ondoren egingo dute azken agurra BECen, hiru emanaldigaz. Gatibuk era horretan agurtuko du bere 25 urteko ibilbidea, zale guztiakin batera, *Aske maitte* betean eta *Lorak eskeintzen*.



Miguel de los Toyos, Mireia Elkoroiribe eta Jessica Ruiz.

Alokabidek errentan ipiniko ditu San Faustoko 16 etxebizitza

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena izenpetu dute. Momentu honetan, etxeok berrizte prozesuan daude

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu dute babes sozialeko 16 etxebizitza berriztu eta herritarrei alokairuan eskaintzeko. Etxebizitzok San Fauston daude, auzoko alde zaharretik hilerriarako blokeetarikoa batean. Aurrerantzean, Alokabidek kudeatuko ditu. Dena dela, momentu honetan etxebizitzak berrizten dabilazala jakinarazi du Mireia Elkoroiribe alkateak. "Batzuei sukaldea falta zaie, eta erabilitakoak egokitzen eta garbitzen dabilaz", azaldu du. Udalak 75.000 euroko inber-

tsioa egin du horretarako. Lanok abenduan amaituko dituzte eta etxeak 2026ko lehenengo seihilekoan ipiniko dituzte alokairuan. Elkoroiriberen berbetan, Durangok "urrats bat gehiago" eman du durangarren kezka nagusietariko bati, etxebizitzari, erantzuteko. Miguel de los Toyos sailburuordeak udalaren ekarpena eskertu du, "Durango delako, biztanleria kopuruari dago-kionez, Biziguneren moduko proiektu bati ekarpenik handiena egin dion udalerrria". Era berean, instituzio publikoen arteko lankidetzat txalotu du.

Mozorrorik zoroenak kaleratzeko ordua

Ez dira Rio de Janeiroko karnabalak, ezta Tenerifeko inauteri entzutetsuak ere. Baina durangarrentzat sakratua da jaietako moztorro eguna, eta zapatu honetan ez diote hutsik egingo hitzorduari. Eguerditik aurrera herriko kaleetan paseatzen dabilenak erraz ikusiko ditu kuadrilla batzuen zein besteen moztorroak. Desfilea 18:30ean izango da, Madalenatik Andra Mariko elizpera. Amaieran sarien zozketa egingo dute. Txosna batzordeak ipuinak eta kondairak oinarri hartuta moztorrotzera deitu du. Horrez gainera, Etxera Eguna ospatzeko ere baliatuko dute eguna.



Kuadrilla bat, iazko sanfaustoetan. LUCIA MERUELO

Asteburuko beste hitzordu nagusi batzuk Odei, Streetwise eta Les Testarudes taldeen emanaldiak (barikuan txosnetan), bertsolarien saioa (barikuan San Agustinen),

patata-tortilla txapelketa (zapatuan Landako Gunean), akrobazia ikuskizuna (zapatuan Ibaizabal parkean) eta Maruxak eta Akerbeltz taldeen saioak dira (zapatuan txosnetan).

Baliabide ekonomiko urriak dituztenentzat laguntzak Zaldibarren

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak diru laguntza eskatzeko epea zabaldu du baliabide ekonomiko urriak dituzten herritarrentzat. Prestakuntzaren bat jasotzera doazen langabeen joan-etorrietarako, ikasketa materialerako, etxebizitza-gastu arruntetarako, eskolaz kanpoko jardueretarako eta bainuontzia dutxagaz ordezkatzeko obretarako dira laguntzok. Interesdunek azaroaren 17ra arteko epea dute eskaerak udalean aurkezteko. Beste laguntza batzuk ere martxan daude: gazteentzako laguntza psikologikorako, Durangoko kiroldegietako matrikuletarako, eta lehenengo seme-alabaren jaiotzarako edo adopzioan hartzeko.

Iazko kirol jardueretarako diru laguntzak Garain

E.H. GARAI

Garaiko Udalak diru laguntza emango die 2024an kirol jarduerak egin zituzten herritarrei. Eskatzaileek udalerrian egon beharko dute erroldatuta, eta 2024an zehar eskualdeko kiroldegiren batean izena emanda egon zirela ziurtatu beharko dute. Udalak guztizko gastuaren % 30 ordainduko du, 100 eurora arteko mugagaz eskatzaile bakoitzeko. Interesdunek udaleko erregristroan aurkeztu beharko dute dokumentazioa, hilaren 31 baino lehenago. Garain kiroldegirik ez egotera, udalak urteak daramatza kirola egitera eskualdeko instalazioetara jotzen duten herritarrei laguntzen.

Pulla-Azkarreta planak 600 alegaziotik gora jaso ditu

Elorrioko Pulla-Azkarreta planak 658 alegazio jaso ditu, Elorrioko Auzo Koordinakundearen esanetan; alegazio kopuruak "Erkidegoko lurralde politikoen aurkakoa den planagazko" bizilagunen desadostasun maila agertzen du

A. M. ELORRIO

Alegazioak aurkezteko epea amaituta, bizilagunek eta elkar-te ekologistek Pulla-Azkarreta S-7.1 sektoreko plan partzialari desadostasuna agertu diotela nabarmendu du Elorrioko Auzo Koordinakundeak; hain zuzen ere, koordinakundeak, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako elkarte ekologikoei eta bizilagunek 658 alegazio aurkeztu dizkiote planari. "Kopuru horrek gizartearen desadostasuna islatzen du, funtsezko paisaia, nekazaritza eta ondare balioak mehatxatzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde politiken aurka egiten duen plan baten aurrean", azaldu dute. Alegazio kopurua abuztuaren eta Elorrioko Ferixa Nausikoen bitartean aurkeztu zela nabarmendu dute. Funtsean, lurzoru industrialak berrerrabili beharrean (200.000 metro koadro inguru koordinakundearen esanetan), landa eremuetan poligono berriak egitea



Plan partzialak eragingo dien lursail bat. EAK

bultzatzea kritikatzeko du koordinakundeak. "Elorriok alternatibak ditu. Koherentzia eta borondate politikoa falta dira horiek aplikatzeko", gaineratu dute.

Elorrioko Udalak uztailean onartu zuen Pulla-Azkarreta plan

partziala, SPRI-Lur promotoreak plana onartzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu eta gero; EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu zen planari hasiera ematea; Elkarrekin-Podemosen, oster, aurka agertu zen.



Artxiboko irudi bat.

25. Euskal Jaia ospatuko dute Zornotzan, azaroaren 25ean

Zornotzako hainbat kultur talde eta eragilek elkarlanean antolatu dute egun osorako egitaraua. 11:00etan hasiko da

A. M. ZORNOTZA

Urtero legez, urriagaz batera, Zornotzako Euskal Jaia ospatuko dute. Aurtengoa 25. urteurrena izanik, festa bereziago bat ospatu gura dute. 11:00etan hasita, Zornotzako hainbat kultur talde eta eragilek egun osoko egitaraua prestatu dute udalaren babesagaz. "Ahalik eta herritarrik gehienek parte hartzea da gure helburua eta bide onetik goazela uste dugu", azaldu dute antolatzaileek. Goizetik, musikagaz, dantzagaz eta abestiekin alaituko dute herria. 15:00etan paella erraldoia egingo dute Zelaieta parkean. Bazkalos-

tean bingo musikatua eta umeentzako egurrezko jolasak egongo dira, eta berriro ere kaleak girotzeko, Eingok kale musika eskainiko du; Luis Urrengoetxea kalean hasiko da kalejira. Euskal Jaia 25. edizioa Zutik taldearen erromeriagaz borobilduko dute. Zelaieta parkean txosna eta ogitar-tekoak ere egongo dira.

Bestalde, egunerako beren beregi diseinatutako Euskal Jaiko zapiak salgai egongo dira. "Animatu elkarregaz jaia ospatu eta disfrutatzea, eta gora Zornotzako Euskal Jaia!", gaineratu dute antolatzaileek.

Berrizko Andikoa auzoko argazki zaharrekin erakusketa

Andikoako argazki zahar sorta ikusgai egongo da Berrizko Kultur Etxean urriaren 26ra bitartean



Argazkietariko bat.

A. M. BERRIZ

Berriztarrek denboran 50 urte atzerako jautzia egiteko aukera dute Kultur Etxean. Hain zuzen ere, Andikoa auzoko bizitzaren lekukotza osatzen duten 50 bat argazki egongo dira bertan urriaren 26ra bitartean. Irudi historikoen artean, erretratuak, familia eszenak eta landa paisaiak egongo dira, eta bisitariak Berrizko auzo honen sustraiak zelakoak ziren eta bilakaera zelakoa izan den ikusi ahal izango dute. Erakusketak oroimen kolektiboaren garrantziari eta argazki ondareari balioa emateko helburua ere badu.

Erakusketa asteleheneetik bari-kura bisitatu ahal izango da, 16:30etik 20:30era bitartean (asteburuetan, Kultur Etxean ekitaldiak dauden egunetan ere bisitatu ahal izango da erakusketa).

Hileta ohituren eta hilerrien bilakaera berbegai Iurretan

Udalak eta Gerediaga Elkarteak ibilbide gidatua antolatu dute biharko, Europako Ondare Jardunaldien barruan

A. Basauri IURRETA

Heriotzak eragin zuzena izan du historian zehar gizakion sinesmen, ohitura eta bizimoduan. Askotariko hileta ohiturek eta hilerrietako arkitekturak halantxik erakusten dute. Euskal Herrian ere hileta ohiturek bilakaera nabarmena izan dute urteen poderioz. Bada, bilakaera hori ezagutzeko, Iurretan ekitaldia antolatu dute zapaturako. Europako Ondare Jardunaldien barruan egingo dute.

Iurretako Udalak, Gerediaga Elkarteagaz batera, ibilbide gi-

datua antolatu du. Aita San Migel plazan ipini dute hitzordua, 11:00etan. Bertaratzen direnek hileta ohituretan eta arkitekturan izandako bilakaera bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute, antolatzaileek azaldu dutenez. Jarduerak ordu eta erdiko iraupena izango du, eta, besteak beste, Iurretako hilerriak izan duen garapena aztertuko dute. Lekua mugatua denez, aurretiaz izena eman behar da 94 681 80 66 telefonora deituta edo ejardunaldiak@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

OSASUN GIDA

**Podologia**
PSE: 214/06



OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel/Faxa: 946 215 404

**Odontologia**
PSE: 26/22



DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulekuak:
Astelehenetik ostegorria: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Laruntzari: 10:00ak hurbila

946 14 80 36 | 626 18 30 30
Asteasuñe bidean 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

**Odontologia**
PSE: 145/13



ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMONO) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (TERO) ETA CBCT

(Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

**Fisioterapia**
PSE: 119/13



Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskumak
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**
PSE: 57/16



Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

**Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



**Psikologia**



Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

**Psikologia**



Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko •
- Estresa kudeatzeko •
- Zure hamermanak hobetzeko •

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

**Optometria**
PSE: 162/13

NAIA ZABALA
AUZMENDI
11567 xol. 19



OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKAIBIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIBRO IKUSMENA • GARUNEKO LESHAK • UKOPEN LENTEAK
- DITO-K ETA MIOPAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometrizentroa.com

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

URRIKO ZOZKETAK



BASA take away jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Gozategi, Mirua eta Malakias urriaren 25ean Mallabian

Hilaren 24tik 26ra bitartean, Urriko Jaiak ospatuko dituzte Mallabian. Adin eta gustu guztietarako ekintzak egongo dira



Gozategi taldearen kontzertu bat. GOZATEGI

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Urriaren amaieragaz batera, badatoz Mallabiko Urriko jaiak. Urriaren 24an hasiko dira, 18:00etan, udaletxeko balkoitik botako duten txupinazoagaz. Egun horretan bertan, IV. Kick Boxing-boxeo gaua, Zutik elektrotzaranga eta Beranduegi erromeria taldea egongo dira, besteak beste.

Urriaren 25erako, zapatua, egun osoko egitaraua antolatu dute. Duatloi txikia, frontenis maratonia, Mallabiko VIII. Ardo Feria eta herri bazkaria egongo dira, besteak beste. Gauean Gozategi, Mirua eta Malakias taldeen kontzertuak egongo dira.

Bestalde, domekan, urriak 26, IV. Autoen Slaloma, Txo-borro magoa umeentzat eta mus txapelketa egongo dira.

Bisita gidatua Zegotita auzoko baserrien arkitektura ezagutzeko

M.Z. MALLABIA

Europako Kontseiluaren ekime-nez eta Gerediaga Elkarteak koordinatuta, hainbat bisita gidatu egiten dabilta Durangaldean. Urriaren 19an Mallabiko Zegotita auzoko baserrien arkitektura aztertzeke bisita egingo da. Bisitarako elkargunea Zegotita auzoko Done Joanen ermitan ipini dute antolatzaileek.



Abadiñoko udal ordezkariak, Usurbilen.

Abadiñoko ordezkariak Egurtzegi zaintzarako etxebizitzaren auzunean

Abadiñon Kantarriketaseko lurretan egingo den egoitza berrirako ideiak hartzera joan ziren Usurbilera

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udaleko ordezkari Mikel Urrutiak eta Edurne Maguregik Usurbilgo Egurtzegi zaintzarako etxebizitzaren auzunea bisitatu zuten joan zen barikuan. Egurtzegi zaintzarako etxebizitzaren auzunea adineko pertsonentzako eta dibertsitate funtzionala dutenentzako ostatu da; bertan, zaintza pertsonalizatua eta arreta eredu berritzailea uztartzen dituzte. Bisita honeguz, udalak zaintza eredu berritzaile hau hurbiletik ezagutu eta ideiak hartu gura izan ditu,

Abadiñoko egoitza izango denaren proiektuari begira.

"Ikusi dugun ereduak zainketei buruzko ikuspegi berri bat eskaintzen du, pertsonaren autonomian zentratua eta komunitatea inplikaturik. Era berean, ontzat jotzen dugu ingurunean integratzeko egin den lana, udalerriko bizilaguentzat topaleku bihurtuta. Datozen hiletan parte hartze prozesu bat martxan ipiniko dugu, denon artean Abadiñoko ekosistema diseinatzeko", azaldu zuten Abadiñoko udal gobernuko ordezkariak.

Tasak, zergak eta prezio publikoak % 3 igoko dituzte Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak datorren urteko tasak, zergak eta prezio publikoak % 3 igotzea onartu du aste honetan egindako ezohiko osoko bilkuran. Bertan aurkezturiko proposamenak EH Bilduren, Abadiñoko Independente Berrien eta PSE-EEren babesa izan du. EAJk aurka bozkatu du.

Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, igoera hori zehazterako orduan, eskaintzen dituzten zerbitzuen kostuaren eta diru bilketaren arteko oreka handiago bat lortu gura izan dute. Eta oreka hori lortzeko, uztailako KPIa hartu dute erreferentzia legez.

Otxandion Galeuskal jaia ospatuko dute, bigarrenenez

Egun osoko jaia izango dute domekan Otxandion. Udazkeneko nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute goizean, eta Kementsu kultur elkarteak umeentzako jolasak, olagarro dastatzea eta musika antolatu ditu arratsalderako

A. Basauri OTXANDIO
Iaz ospatu zuten lehenengoz Galeuskal Jaia Otxandion, Kementsu kultur elkarteak antolatuta. Izandako harrera ikusita, aurtan ere antolatzea erabaki dute. Egun osoko egitaraua prestatu dute euskal kultura eta galiziarra batzen dituen elkartasun jaia ospatzeko. Udalak eta Gorbeialde Landa Garapen elkarteak antolatuta, udazkeneko nekazaritza eta artisautza azoka egongo da, 11:00etatik 14:30era. Zazpi ekoizleak eta lau artisauk euren produktu eta artisau lanak salgai ipiniko dituzte plazan. Besteak beste, gazta, pastelak, garagar-

doa, gozoak, pateak eta ogia salduko dituzte erakustokietan. Horrez gainera, 12:00etan olagarro eta ardo dastatzea egingo dute, Galiziako gaiteroek girotuta. Kementsu kultur elkarteak umeen jolasak eta aurpegi margotzea ere antolatu ditu. Aire Eire plaza taldeak bertuko du jai giroa, 19:00etan hasita.

XXXV. PERRETXXIKO ERAKUSKETA IKUSTEKO AUKERA EGONGO DA, PLAZA INGURUAN

Kementsu elkarteak eta Mirugai mendizale taldeak antolatuta, XXXV. Perretxxiko Erakusketa egongo da domekan, 11:30etik 14:30era. Perretxxikoei buruzko ezagutza emateko eta perretxxikoak zaintzeko beharraz ohartarazteko antolatu dute erakusketa, Juan Kruz Lejarcegiaren berbetan. "Ahalik eta perretxxikorik gehien batzen ahaleginduko gara, asko ez dagoen arren. Horretarako, perretxxikozaleak gonbidatu ditugu baturiko aleak ekartzera", gaineratu du Lejarcegi. Perretxxikoak bezperan eroan behar dira kultur etxera, 13:00ak baino lehenago. Errotari Mikologi elkarteak sailkatuko ditu.



Astakurutz elur-zuloa.

Astakurutz elur-zulora bisita gidatua egingo dute zapatuan

Urkiolako parketxeak sei kilometroko ibilaldi zirkularra antolatu du; Otxandioko plazatik irtengo dira

A. Basauri OTXANDIO
Europako Ondare Jardunaldien barruan, Urkiolako parketxeak bisita gidatu bat antolatu du zapatarako Bizkaian erabili izan zen azken elur-zulo tradizionala, Astakurutz elur-zuloa, eza-gutzeko. Neguko elurra metatzeko, zuloak egiten zituzten mendian, sorturiko izotza be-roaldietan erabiltzeko.

Antolatzaileek Otxandioko plazan ipini dute hitzordua, 10:00etan. Sei kilometroko ibilaldi zirkularra egingo dute, Felix Muguruzak gidatuta. Astakurutz elur-zuloa, harbide bat eta Presazelaiko basoa bisitatu-ko dituzte. Lekua mugatua da eta izena eman behar da (94 681 41 55 / urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus).



Bilkura eskolako eraikin zaharrean da.

Atxondo Kultura Mahaiko batzarrean parte hartzeko deia

J.D. ATXONDO
Atxondo Kultura Mahaia bilkura berezia egingo du zapatuan. 10:30ean, eskolako eraikin zaharrean, eta herriko talde, elkarte, eta norbanakoak parte hartzera gonbidatu dituzte. Batzarrak helburu nagusi bi ditu. Batetik, 2026ra begirako proposamen berriak jasoko dituzte. Bestetik, Mahaia-
ren funtzionamendua eta oinarriak hobetzen jarraituko dute.

Atxondoko pilota eskolako gazteak txapelketara bueltan

Pilota eskola indarberrituta dabil eta gaur Bizkaiko txapelketako partidua jokatuko dituzten Apatan



Pilota eskolako gaztetxoak pilotaleku kanpoan.

J.D. ATXONDO
Atxondoko Pilota Eskola biziberritua martxa hartuta dabil. Lehenengo, eskolako gaztetxoek lagunartekoak jokatu zituzten herriko pilota goxua torneoan. Orain, hainbat urteko geraldien ondoren, Bizkaiko txapel-

keta jokatzeko dabil. Gaur, 17:30ean, hiru partidua egongo dira Apatako pilotalekuan: Izei-Orkatx bikoteak Abadiñoren kontra jokatu du, Iraun-Aimar bikoteak Markinaren aurka, eta Ekain-Benat bikoteak Zal-dibarren aurka.

Ipuin kontaketa saioa Mañarian

J.D. MAÑARIA
Oihana Etxegibelek ipuin kontaketa saioa egingo du Mañariko liburutegian, urriaren 23an, eguna, 18:00etan. *Erdu ipuinen abarora* izeneko saioa 3tik 5 urtera arteko haurrei zuzenduta dago eta txikiak artean irakurzaletasuna eta ipuinen munduagazko interesa bultzatzea du helburu.



OIHANA ETXEGIBEL.

Mobidurangeldea ekimena martxan da aurtan ere Izurtzan

J.D. IZURTZA
Mobidurangeldea ekimeneko bultzatzaileek ikasturte berria hasi dute eta Izurtzan ere eskaintzen dute zerbitzua, eskualdeko beste hainbat herritan legez. Izurtzan eguazteneko egoten dira, 10:15etik 11:15era bitartean. Mobidurangeldea Durangeldeko Mankomunitatearen ekimena da eta adinekoei jardue-

ra fisikoa egiteko orientazioa eskaintzea du helburu. Saioetan ariketa fisiko arinak eta eguneroko bizimodurako baliagarriak direnak lantzen dira, gorputza aktibo mantentzeko eta mugikortasuna hobetzeko. Parte hartzaileek taldean aritzeko eta sozializatzeko aukera ere izaten dute, osasun fisikoaz gainera ongizate emozionala hobetzen duten bitartean. Saioak parte hartzaile bakoitzaren erritmora eta beharrezanetara egokitzen dituzte.

Dolu perinatala berbagai, Mallabian

Urriaren 15a Dolu Perinatalaren Nazioarteko Eguna da. Eta horri ikusgarritasuna emateko, berbaldia antolatu zuten eguaztenterako. Kontzejuzarrean egindako berbaldian Leticia Calvete gizarte langileak berba egin zuen, eta Esti Arrizabalaga Agirrek eta Mikel Alberdi Larrañagak euren testigantza kontatu zuten.



DURANGALDEA ASTEON



Japoniako kulturazalez bete da Zornotza

ZORNOTZA Zapatuan, Zornotzako Zelaieta zentroa eta inguruak Japoniako kulturaren zalez bete ziren. Berbaldiek, azokak, ikuskitunek, manga liburuek, animeak eta Japoniako beste hainbat ikurrek hartu zuten herrigunea. Horretaz guztiaz gainera, Zelaie-tako frontoian mozzorro desfilea egon zen arratsaldean.

Gurot Express gazteentzako lehiaketa, azaroan

DURANGALDEA Durangaldeko gazteek Gurot Express lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute azaroan. Txapelketak aukera paregabea eskainiko die gazteei euren sormena erakusteko. Parte hartzaileek ordubeteko erronka express batean parte hartuko dute eguen arratsaldero, 15:00etatik 21:00etara, eta erronka bakoitzean garaile bat egongo da. Zetak taldeak San Mamesen emango duen kontzerturako sarrera bi irabazteko aukera izango dute parte hartzaileek.

GUTUNAK

Ereindako haziak fruitua ematen

IMA GARRASTATXU
DURANGOKO EH BILDUKO ZINEGOTZIA

Durangoko jaietan murgilduta gauden honetan, indarkeria matxista prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokolo bat daukagu lehen aldiz. Oso pozik nago egindako lanarekin.

Aurreko legealdian EH Bilduk mugimendu feministarekin batera egindako lanaren eta hartutako konpromisoaren ondorioz, Durangok Indarkeria Matxistaren Aurkako Unitatean espezializatu-tako teknikari bat du.

EH Bildun poztu egiten gaituguk bultzatu genuen proiektu bat martxan jarraitzen duela ikusteak. Honi esker, posible izan da Durangoko jaietan indarkeria ma-

txista prebenitzeko eta horren aurrean jarduteko protokolo bat garatzea, non talde politikoez ez ezik, mugimendu feministak eta elkarteek ere parte hartu duten.

Bereziki eskertu eta zoriondu nahi ditut Indarkeria Matxistaren Aurkako Unitateko teknikariak eta mugimendu feministak egiten duten guztia, haien konpromisoa eta lana funtsezkoak baitira gure udalerrian indarkeria matxistaren aurkako prebentzioan, detekzioan eta jardunean aurrera egiteko.

Era berean, argi izan behar dugu pertsonen askatasunaren aurka doan edozein egoeratan jarduteko erantzukizuna dugula. Horrelako zerbaite gertatuko balitz, 747 459 584 telefonora deitu edo txosneta-ko gune morera joan.

Jaiak aske gozatu!

Ez dugu inolako eraso matxistarik onartuko!



POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN
EH BILDU

Jaietako txupinazoak

San Fausto auzo elkarteak lagunek bota dute aurten udaletxeko txupinazoa; txosnetakoa, berriz, gatzetxekoek. Azken urteetan, Durangoko elkarte mobilizatuenak izan dira espazio bat eskatzerako orduan. Bi kasuetan eskaria berdina zen: leku bat behar dugu gure funtzio soziala betetzeko, leku bat gure proiektuak garatzeko. San Faustokoek lortu dute espazio bat; gazteek, aldiz, eraikin pribatu bat okupatu behar izan dute hutsune hori betetzeko.

Hainbat elkarte eta eragilek ekarpen handia egiten diote herriari eta baldintza duinetan egitea merezi dute. Garrantzitsua da erabakitzea nori eta zertarako ematen zaion tokia herrian; izan ere, honek ezaugarritzen du neurri handi batean herriko bizitza soziala. Beharrianak badaude: elkarteentzako biltegiak, bilerak egiteko lekuak, sorkuntza espazioak, aretoak... Eraikinak ere badaude: Plateruena, Garai jau-regia eta ospital zaharra, adibidez. Beste batzuk eraitsi dituzte: tren estazio zaharra, Landarte eraikina. Korreoseko eraikina ere bide beretik joango dela dirudi. Jaietan aparra pasatu eta eguneroko errutinara bueltatzean, aurrekontuen eztabaida dator. Bertan erabakiko da non, nola eta zertarako erabiliko dugun dirua. Espazioekin zer egingo dugun definitzeko ere momentu egokia da.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ezkontzak²⁰²⁵

JULEN ETA ENEKO URIBE

Ezkontzak . Estudio sesioak . Jaunartzeak . Sesio pertsonalak norberen etxean . Bideoak



www.julenuribe.com

608 875 486

julen@julenuribe.com

Erreportai bat bikaina da
paregabekorik ez duenean

Une garrantzitsuak ez dira errepikatzen,
baina betiko gorde daitezke irudietan



649 330 740

enekouribemata@hotmail.com



Eztei bidaiak 13

Orrazkera 14

Gonbidatuak 17

Arropa 18

Bitxiak 20

Estetika 21

Jatetxeak 22

Argazkigintza 23

Ezkontzaren prestaketa: mimo handiz egindako lana

Durangaldean profesionalen sare sendoa dugu zure ezkontza egunari distira berezia emateko: jantzien eta ile-apainketen dotoretasuna, bitxien xarma, jatetxeetako sukaldaritza goxoa eta baita bidaien eskaintza paregabea ere

Lan horri balioa eman gura diogu, eta, horregaitik, hementxe duzue gehigarri berezi hau. Bertan, ezkontza eguna prestatzeko orduan lagun izan daitezkeen ideiak, joerak eta gomendioak aurkituko dituzue. Durangaldeko profesionalak eskaintzen dituzten zerbitzuei eta aholkularitzari eskerrak, zuen ametsak errealitate bihurtzeko gakoak aurkituko dituzue. Izan ere, ilusioz beteriko ospakizuna izan arren, antolaketa lana eskatzen duen eguna da. Arropa egokia hautatzea, ilea eta makillajea zaintzea, gonbidatuei gustatuko zaien menua aukeratzea edo eztei-bidaia leku berezi batera antolatzea... Ez da beti erraza pieza guztiak ondo lotzea.

Horregaitik, geroago eta bikote gehiagok jotzen dute sektoreko profesionalengana. Ezkontzetan esperientzia dutenek aholkuak, ideiak eta lasaitasuna emango dizkizute





Eztei-bidaia, ezkontzako parterik abenturazaleena



Maldiven edertasuna:
hondartza ahaztezinak eta
ur kirolen zaleentzako paradisua

Gozatu zure eztei-bidaia Maldivetan. 1.200 uharte inguru eta 26 atoloi izanik, paradisiakoa da eguzkia, hondartza eta ur kirolak maite dituztenentzat; baita erlaxazio eta atseden leku ere.



Kenya, safarien abentura
eta bertako kostaldearen
edertasuna deskubritzea

Kenya oso helmuga aukeratua izaten da ezkonbidaiarako, moda-modakoa. Safariak Afrikako sabanaren edertasuna ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Gainera, bidaia berean hondartzaz ere gozatzeko aukera dago.



Ezagutu tradizioa eta
modernitatea elkartzen
dituen herrialdearen magia


Japoniara bidaia liluragarria, egiteko porposamena egiten dizugu, herrialde honetako altxorrek ezagutzera. Osaka eta bere gaueko bizitza, Kioto tradizionala eta Tokiomoderna, dira Japonia ezagutzeko bisitatu beharreko leku ezinbestekoak.

EZTEI-BIDAIAN JOATEKO HELMUGA PROPOSAMENAK

- JAPONIA
- HAWAII
- RIVIERA MAYA
- BALI
- KENYA
- NORVEGIA
- AMALFIKO
- KOSTALDEA
- ZEELANDA BERRIA
- RIVIERA MAYA????????
- ????????????????????
- ????????????????
- GREZIA
- EGIPTO
- COSTA RICA



Ezkontzako osagarriarik garrantzitsuenetariko bat orrazkera izaten da. Egun horretan gustura sentiaraziko zaituen estiloa aukeratzea da gakoa.



Estiloz betetako orrazkerak



Erdi bildu txirikordatua.



Motots bildua.



Orrazkeraren arabera, osagarriak aukeratu daitezke. Loreak zein bitxiak izan daitezke.



Eve
HAIR SALON

Alluitz kalea 2, behea
Tel.: 644 048 695
@eve.hairsalon

ARTEKALEA KALEA 33 DURANGO

**bare
bare**
ileapaindegia

Tel.: 946 46 25 43 | 639 281 907

"Nahiz eta emaztegaiak ideiekin etorri, adi entzuten dituzte aholkuak"

JENNIFER MARCHAL RODRIGUEZ ESTILISTA

Jennifer Marchalek bere lanetan ipinitako mimoa sumatzen da, eta horixe da, hain zuzen ere, ezkontza bakoitza berezi bihurtzen duena; hamabi urteko ibilbidea du

Jone Guenetxea DURANGO

Jennifer Marchalek bere etxean eman zituen lehenengo pausoak edertasunaren munduan, lagun eta senitartekoak orrazten ezkontzetarako. Denboragaz, bere zaletasuna ogibide bihurtu zuen eta formakuntza jaso zuen Bilbon eta Madrilén. Ordutik, hamabi urte daramatza sektorean lanean, eta, esperientzia gainera, bere estilo propioa ere landu du: naturala, zaindua eta beti bezeroaren nortasunera egokitua.

Ezkontzei bideratuta, zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Batetik, esperientzia premium osoa daukagu. Hartara, emaztegaiagaz batera beste pertsona bi sartzen dira. Sarritan ama eta ahizpa izaten dira, edo lagunen bat, babestuta sentitzeko. Zerbitzu honetan bina proba sartzen dira. Bestetik, badugu zerbitzu bakarreko esperientzia ere. Izan ere, jendeak sarritan ez daki orraztu eta makillatu egiten dugula. Beraz, zerbitzu biak uztartzen dira eta aukeran dago beste pertsona estraren bat sartzea.

Zelan izaten da lehenengo kontaktu hori ezkontzera doan pertsonagaz?



Jennifer Marchal.

Aurretiazko hitzordu bat ipintzen dugu saloian elkar ezagutu gaitzen. Ezkontza bera zelakoa izango den azaltzen digute. Badaude oso ezkontza sinpleak, eta kasu horietan gauza sinple baten bila datoz. Horrela, profil bat lantzen dugu eta proba bi egiten ditugu. Lehenengoa ezkontza baino hilabete batzuk lehenago egiten dugu. Lanketa denboragaz egitea gustatzen zaiz, lasai ibil-

tzeko. 3-4 ordukoa izaten da, aukera askogaz etortzen direlako. Dena erabaki dugunean, hau da, ilea eta makillajea, jantziaren azken-aurreko proba egiten dugu look osoa ikusteko. Proba biak bateratzeari garrantzitsua deritzogu, dena ondo uztartuta dagoela baieztatzeko.

Jendea ideia zehatz batez etortzen da, baina Instagrameko argazkietatik errealitatera alde dago.

Lehenengo eta behin, argazki guztiak zoragarri ikusten dira Instagramen, baina bizitza errealean ez daukagu ez azal hori ezta ile kopuru hori ere. Baina, egia esan, jende asko ideia batez datorren arren, aholkuak begi onez hartzen dituzte. Beti gomen datzen diet argazki batzuk erreferentzia modura dituzten arren beste aukera batzuk ere probatzea.

Ezkontza ospatzen den lekura joaten zarete zerbitzua eskaintzera?

Gaur egun, ezkongaien euren etxera edo ospakizuna izango den lekura joateko eskatzen dizute. Zerbitzua bertan eskaintzea da kontua. Gainera, argazkilaria ere bertan egoten da eta prestaketa uneen irudiak hartzen dituzte.



Ile batua osagarriekin



Motots sinplea



Estilismoa eta makillajea



jennifer
MARCHAL

@marchalhairandmakeupsalon

Tel.: 662 410 363

Kurutziaga kalea, 26
Durango





"Emaztegaia zainduta eta berezi sentitzea gura dugu"

HIRUNE RUIZ HIRUNE ILE APAINDEGIA

Ile orrazkera baino askoz ere gehiago eskaintzen dute: emaztegai bakoitzaren ametsa egia bihurtzea da helburua, egun handian argi propioz distira egin dezan

J.D. DURANGO

Egun berezi batean, xehetasun guztiek dute garrantzia. Horregaitik eskaintzen dute aholku pertsonalizatua, orrazkera neurria eta laguntza osoa, emaztegaia lasai eta berezi sentitu dadin.

Zelan lortzen duzue emaztegai bakoitzaren orrazkera bere estilo eta nortasunagaz bat etortzea?

Gure apaindegian, esperientzia pertsonalizatua eta osoa eskaintzen dugu, emaztegai bakoitzak bakararra sentitu dadin. Aholkularitza integralean ipintzen dugun arretagaitik nabarmentzen gara: emaztegai bakoitzaren estiloa, aurpegia, janzkera eta funtsa aztertzen ditugu, bere edertasun naturala nabarmentzen duen itxura bat sortzeko. Egun osoko laguntza zerbitzua ere eskaintzen dugu, dena azken xehetasuneraino perfektua izan dadin ziurtatuz.

Zer esperientzia eta prestaketa duzu?

11 urte baino gehiago daramatzat ile apainketaren munduan lanean, eta denbora honetan beti egon naiz etengabeko prestakuntzaren aldeko apustua egiten. Hainbat ile apainketa ikastaro egin dut; besteak beste, banakako prestakuntza pertsonalizatua, eta horrek nire teknika, sormena eta xehetasunei arreta hobetzea



Hirune Ruizek 11 urte baino gehiagoko esperientzia du ile apainketen munduan.



Esperientzia pertsonalizatua eta integrala eskaintzen du ile apaindegian.



"Gure erronkarik handiena egun handiaren zirrara edertasun bihurtzea da"



ahalbidetu dit. Emaztegai bakoitza eta ekitaldi bakoitza ikasten eta hobetzen jarraitzeko aukera berri bat da.

Ezkontza bakoitza erronka bat da?

Bai. Gure erronkarik handiena egun handiaren zirrara eta nerbioak edertasun eta lasaitasun bihurtzea da. Dena bere horretan joan behar da, tokiaren girotik hasi eta azken emaitzaraino. Emaztegaia zainduta, berezi eta seguru sentitzea gura dugu, eta horrek enpatia, antolakuntza eta egiten dugunarekiko maitasun handia eskatzen du.

Zein orrazkera dago modan gaur egun?

Gaurko ezkontza-joerek naturaltasuna eta dotorezia lasaia azpimarratzen dituzte. Uhin leunak, ehundura baxuko bilduak eta orrazkera solteak nagusitzen dira, espontaneoak baina oso

landuak diruditenak. Era berean, itzultzen ari dira txirikorda arinak, nortasuna duten osagarriak —lore naturalak, perlak edo eskuz egindako buruko apaingarriak— eta itxura hezeko akabera leunduak emaztegai ausartagoentzat. Laburbilduz, helburua emaztegai bakoitzaren funtsa islatzea da estilo fresko, erromantiko eta autentiko bategaz.

Emozio berezirik eragin zizun ezkontzarik gogoratzen duzu?

Emozio asko gogoratzen ditut, baina beti geratzen zait gogoan emaztegaia ispluan begira ikustea, ilea orrazten ari garen unean. Bere burua ezagutzen duen, irribarre egiten duen eta hunkitzen den une hori deskribaezina da. Bere bizitzako egunik garrantzitsuenetarik baten parte naizela jakitea sentsazio zoragarria da.

Zer eduki partekatzen duzu 'hiruneileapaindegia' Instagram kontuan?

Denerik partekatzen dut: egunero ile-zaintza aholkuak, ezkontza-orrakkerak eta ile-eraldaketak. Nire benetako lana, inspiratzen nauten joerak eta estilo bakoitzaren atzean dagoen prozesua erakusten dudana espazioa da. Gustatzen zait jarraitzaileek ideiak aurkitzea, ikastea eta orrazkera on batek pertsona bakoitzaren edertasuna zelan hobetu dezakeen deskubritzea.



Hirune Ruiz

ILE APAINDEGIA

Francisco Ibarra 5 behea . Durango
946 201 157

☎ 648 755 726 📷 [hiruneileapaindegia](#)



DE PEDRO



DE PEDRO



DE PEDRO

Betiko oroitzapen bihurtzen diren argazkiak egiten ditugu

30 urte baino gehiago igaro dira ezkontzetako argazkiak egiten hasi ginenetik, baina, egia esan, lehenengo eguneko gogo eta urduritasun berarekin jarraitzen dugu denetara joaten. Guretzat ez da lana bakarrik: benetako maitasun istorioak kontatzea da, barre, besarkada, malko eta momentuko emozio guztiarekin. Zornotzako De Pedro Fotografo-n

gehiengustatzen zaiguna gertatzen dena bere horretan harrapatzea da, pose arrarorik eta une behar-turik gabe. Gure estiloa naturala, sortzailea eta artistikoa da, benetako oroitzapen fresko eta desberdina nahi duten bikoteentzat pentsatua.

Ezkontza bat ez delako bakarrik "bai, nahi dut" edo banketea. Urrea balio duten unez bateriko egun

osoa da: hasi aurreko urdurita-suna, begirada konplizeak, gaueko une eroa... Asko gustatzen zaigu hor egotea, xehetasun guz-tiei adi (baita ia inork ikusten ez dituen ere), argazkiak berriro ikustean egun hori gogoratu dezazuen.

Argazki zurrunik ez, ezta irri-barre faltsurik ere. Benetan defi-nitzen zaituzteten horren bila

goaz: bat-bateko barrea, usteka-beko besarkada, errepikatzen ez den begirada hori. Ezkontza ba-koitza desberdina da, eta urte askoko esperientzia izan arren eta ezkontzako argazkigintzan sari garrantzitsuak jaso arren, benetan motibatzen gaituena zuen aurpegian ilusioa ikustea da be-tirako oroitzapen bihurtzen diren irudi horiek jasotzen dituzuenean.

Eta ez ditugu argazkiak ezkon-tzetan ateratzen bakarrik. Haur-dunaldi saioetan ere egiten ditu-gu, eta haur txikiei, jaunartzeetan eta familia argazkiak egitea ere oso gogoko dugu, beti ere gure estilo natural eta hurbil horrekin.

Hainbeste denboraren ondoren, ikasten jarraitzen dugu, gauza berriak probatzen eta kontatuko dugun hurrengo istorioarekin amets egiten. Gehien gustatzen zaiguna hor egotea da, kamera eskuan, bizitza osoan lagundu-ko dizueten uneak harrapatzeko prest.

De Pedro Fotógrafo
www.depedrofotografo.com



- Ezkontzak
- Book-ak
- Jaiotzak
- Jaunartzeak
- Industrialak
- Publizitatea

www.depedrofotografo.com

Amorebieta



ATTICA

Fray Juan de Zumárraga
1.º planta, Durango

634 225 755
688 774 220

attica.nail.loungee

Magick

Ermodo kalea, 27.º ezk. DURANGO
Tel: 688 805 300

**MODA ETA ZEREMONIA
OSAGARRIAK**

**JOERA SORTZEN DUGU,
2008TIK GAUDE ZUREKIN**




Alicia Rueda: nortasun zigilua duten jantziak egun berezi horretarako

Alicia Ruedaren Atelierrean neurrira lan egiten da, hau da, zirriborro bat sortzen da emaztegai bakoitzarentzat, eta probetan bere jantzia jaiotzen ikusten duen magia esperimendatzen du. Aliciak beti bilatzen du diseinuen eta ehunen patroien arteko oreka, eta batez ere emakumeari entzuten dio bere ametsak egia bihurtzeko.

Atelierra sormenerako espazioa da, baina beti bezeroaren konplizitateagaz batera. Soineko bakarrak sortzen ditu, nortasun zigilua dutenak. Horixe da Alicia Rueda diseinatzaile modura aukeratuz gero aurkituko duzuna.

Hementxe dituzue Alicia Ruedaren Aimée bilduma berriko pieza batzuk, labetik atera berri.



EUSKOTZARAK
MODA • DISEÑO •

Ermodo kalea, 3
48200 Durango

Tel.: 946 817 205
info@euskotzarak.com



**Para Ti
Zuretzat**

Ermodo 14-B
DURANGO

@paratidurango







Ezkontzako eraztuna pertsonalizatzeak bakarra izatea eragiten du. Izenak edo inzialak graba daitezke, eta ezkontzaren data eta hitz edo esaldi berezi bat ere bai.



Ezkontzako eraztunak, maitasunaren sinbolo



Aukera ugari dago ezkontzako eraztunak egiteko, diseinu klasikoetatik hasi eta eredu moderno eta pertsonalizatuagoetaraino



Eraztunik onenak aurkitzeko, garrantzitsua da honako hauek kontuan hartzea:

- Materiala:** urre horia, urre zuria, urre arrosa, platinoa edo zilarra.
- Diseinua:** modelo sinpleetatik hasi eta grabatutako xehetasunekin ezkontzeko eraztunetaraino.
- Prezioa:** materialaren eta ezkontzako eraztunen pertsonalizazioaren arabera.
- Erosotasuna:** funtsezkoa da ezkontzako eraztunak hatzari ezin hobeto egokitzea.

Eneko Unzu
BITXIGILEA

Nahi duzun ezkontza-eraztuna egingo dizugu

enekounzalu.com

Bitxi-denda · Erloju-denda

BELAR

Barrenkalea, 13 DURANGO
94 681 88 35 / 610 46 91 08
joyerlabelar@gmail.com

"Aholkularitza zintzoa eta benetakoa da gure berezitasuna"



VIRGINIA ANSORENA ESTETIKA ZENTROKO ARDURADUNA

Bezeroa erdigunean jartzea, arreta pertsonalizatua eta punterengo teknologia dira Virginia Ansorenaren bereizgarriak

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Zertan espezializatua dago Virginia Ansorena zentroa?

Aurpegiko eta gorputzeko tratamenduan espezializatuta dagoen zentroa gara. Pertsona guztiak zaintzen ditugu hemen, mundu guztiarentzat ditugu tratamenduak, eta, jakina, baita emaztegaientzat ere.

Zelan zaintzen dituzue emaztegaia?

Zaintzeko modu desberdinak ditugu, emakume bakoitza, pertsona bakoitza, desberdina delako. Alde batetik, emaztegai exijenteak ditugu. Horiek euren zainketa prozesua urtebete lehenago hasten dute gutxi gorabehera, eta urte osoko prozesu batean murgiltzen dira. Horixe izango litzateke perfektua, urtebete edo bederatzi bat hilabete lehenago hastea. Bestetik, ez hain zorrotzak direnak daude. Horiek sei bat hilabete lehenago hasten dira. Eta, azkenik, lasaiagoak direnak ditugu. Horiei gutxienez hilabete edo hilabete eta erdi lehenago etortzeko eskatzen diegu. Bestela, ezin dugu segurtasunez lan egin. Batzuetan kimikoekin lan

egiten dugu eta beharrezkoa izaten da denbora, azala bere onera etortzeko. Guk egiten ditugun tratamenduetan ez dago inolako arriskurik, jakina.

Emaztegaiez ari gara, baina senargaiak ere badaude.

Eta horiek ere berdin-berdin zaintzen ditugu. Gizonezkoen azala errazagoa da tratatzen, patologiaren bat ez badago, jakina. Ez du horrenbesteko atentzioa eskatzen.

Zuen zentroan tratamenduak eskaintzeaz gainera, etxean errutina bat egitea ere gomendatzen dizue?

Virginia Ansorena zentroan denda zerbitzu bat ere badaukagu, baina ez dugu salmenta soil bat egiten. Bezeroarekin jesartzen gara eta egin beharreko errutina nola egin erakusten diogu. Guk eskaintzen ditugun errutinak laburrak eta eraginkorrak dira. Horrelakoak gustatzen zaizkigu. Sare sozialetan ikusten ditugun *skincare* errutinak ergelkeria hutsa dira, ez dira beharrezkoak. Funtzionatzen duten tratamenduak bilatzen ditugu.

Aholkularitza zintzoa eta benetakoa da gure berezitasuna.

Ezkontza aurretik egin beharreko tratamenduez hitz egiten ari gara, baina Virginia Ansorena zentroa hori guztia baino gehiago da.

Negozio bati maitasuna eta pasioa jartzea ezinbestekoa da eta horixe izan dut helburu hasiera-hasieratik. Lanbide honek liluratuta nauka, txiki-txikitatit, eta uste dut hori igarri egiten dela. Negozio honek arima duela esango nuke. Gainera, gurean bezeroa da garrantzitsuena, eta bera dugu erdigunean. Horrez gainera, apurka-apurka hazten doan talde zoragarri bat dut inguruan, lanerako derrigorrez eduki behar diren balioak dituztenak: zintzotasuna, lanerako gogoia eta prestakuntza. Une honetan sei pertsonak osatzen dugu Virginia Ansorena zentroa, eta denean oso harro nago. Gainera, Ander semea ere lantaldeko parte da, estetikako goi-mailako ikasketak egin zituen, eta beragaz lan egitea ohorea da niretzat. Momentu zailetan lanak bizia salbatu dit eta Ander ondoan izateak lasaitasuna eman dit.

Virginia Ansorena zentroan aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak eskaintzen dituzte. Astelehenetik barikura 08:30etik 19:30era daude bertan



VA
VIRGINIA ANSORENA

Josemiel Barandiaran Kalea, 10
Durango
Tel. 944 35 57 45
@estetica_virginia_ansorena





Mahaiaren bueltan ospatzen diren ezkontzak

Ezkontideek gonbidatuentzat ospakizun ahaztezina prestatzea dute helburu. Horretarako, kalitatezko otordua aukeratzea ezinbestekoa da. Izan ere, Euskal Herrian ez dago bazkari edo afari baten bueltan hasten edo amaitzen ez den ospakizunik. Jatetxea aukeratzekoan, data gordetzea da garrantzitsuena, leku arazorik gertatu ez dadin.

Menuari dagokionez, menu pertsonalizatuak egitea posible da jatetxerik gehienetan. Ezkontza baten ardatza ospakizuna bada ere, otorduak eta zaporeek paper handia jokatzen dute. Jatetxeek

aukera eskaintzen dute bikotearen gustuak eta gonbidatuen beharrian dietetikoak kontuan hartuta menua diseinatzeko: sukaldaritza tradizionala, nazioartekoa edo berritzailea, aukeran.

Bestalde, antolaketan erraztasuna ematea da jatetxe batean ezkontza bat egitearen beste abantailetariko bat. Jatetxeak arduratzen dira zerbitzariez, sukaldeaz, dekorazioaz, eta askotan musika edo bestelako xehetasunez ere, bikoteak eguna lasai bizi dezan. Hori bai, bikote bakoitzak bere izaeraren arabera ikutua ematen dio ezkontzari.

ILEAPAINDEGIA

JUANAN BUENO

Ile-apainketa mistoa
Makillajeak zeremonietarako

667 45 26 29 - 610 69 57 57

Tronperri, 4 • DURANGO

Etxegana

IRIATE & SPA

Opilatu zure ezkontza **Corbeia**ko Parke Naturalean
Lorategiak, jantoki zabala eta gastronomia ezin hobea.
Ezkontza bikaina egunean
Perfektua, besterik ez

Tel. 945 33 84 46 / 945 80 31 95
bodilesgetvegana.com
www.etxegana.com
Ipiriburu 38, Zieruri Vitoria, 48944



Izorne Luengo.

"Akebasoko lantaldearen helburua ezkontza egunaren biharamunean jendeak 'egon naizen ezkontzarik onena izan da' esatea da"

IZORNE LUENGO AKEBASO JATETXEKO ARDURADUNA

Anbotoren magalean, Akebaso jatetxeak ezkontza ahaztezina izateko aukera paregabea eskaintzen du; giro lasaia, konfiantza eta eskusibotasuna ere eskaintzen

Aritz Maldonado ATXONDO

Aurtengo ezkontza denboraldia amaitzen ari dira Akebaso jate-txean. Pozik dago bertako arduraduna den Izorne Luengo. "Urtea luze egiten da, asteburu guztietan izan ditugulako ezkontzak; batzuetan bariku eta zapatuetan, baina urte polita izaten ari da", azpimarratu du.

Zelako lana du ezkontza bat prestatzeak?

Geroago eta desberdinagoak dira eta ezkontzak jai moduko bat bihurtu dira. Niretzat ezkontza bakoitzak bere xarma du. Ezkongaiekin batera, Akebasoko lantaldeak ezkontza janzen du, eta gure helburua ezkontza egu-



naren biharamunean jendeak 'egon naizen ezkontzarik onena izan da' esatea da. Betetzen ari garela uste dut, jendeak oso oroitzen politak eramaten dituelako.

Zerk egiten du berezi Akebaso ezkontzea?

Jatetxearen kokapenak eta eskusibotasunak esango nuke. Anboton, gure Mariren magalean, egoteak bere magia du, eta jendeak lasaitasun hori egotea igarri eta eskertzen du. Gure lantaldearen prestutasuna ere eskertzen dute; beti gauden hor laguntzeko prest, ezkongaiak zein gonbidatuak lasai asko egoten dira ezkontzaz gozatzen, eta hori garrantzitsua da. Jada 2027ko egutegia zabalik dugu eta oraintsu gugana etorritako bikote batek esan digu lasaiago daudela gurekin berba egin eta gero. Zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen dugu, hau da, ezkongaiekin elkarrekin eraikitzen dugu ezkontza bera, eta prozesuan zehar egindako lanaren ondoren lasai heltzen dira ezkontza egunera. Klasi-koagoak zein proposamen desberdinagoak dituztenak, ezkon-

tza guztiak dira exigenteak, eta bereziak.

Asko aldatu da ezkontza aurretik egiten den lanketa azken urte hauetan?

Izugarri. Menua probatzera datozenean, ezkongaien gurasoek sarri esaten dute: 'gu ezkondu ginenean, jatetxea aukeratzea zen egiteko bakarretakoa ia'. Gaur egun zeremonia bakoitzak bere dekorazioa du, eta bere lanketa. Ohikoa da, adibidez, bikoteak 'Ongi etorri' dioen ispilu batekartztea, eta gonbidatuek argazkiak ateratzen dituzte horrekin. Guztiz aldatu da eta lan handia dago atzean.

Geuk ere igarri dugu aldaketa hori. Hasi ginenean, ezkontzan bazkaria eman eta ez zen askoz gehiago luzatzen. Horregaitik sortu dira *wedding planner* figurak. Zer du Akebasok? Ezkongaiak badakitela, entzun dutelako, edo ikusi dutelako, Akebasok zerbitzu horiek eskaintzen dituela. Hain zuzen ere, horixe da gure indarguneetako bat, ezkongaiak gure esku uzten dutela lan hori. Dena dela, edozein profesionalak badaki ongi etorria izango dela gure etxera.

akebaso

San Juan auzoa, 16
Atxondo, Bizkaia
Tel.: 946 582 060
akebaso@akebasorestaurante.com
akebasorestaurante.com



***Udazkeneko aukera
%10 deskontua menuan***



*Hotel Olajaregi
Kurutzia 52 . 48200 Durango
Telf: 946200864*

Kulturaren Jaialdi bihurtuta, 60.erako prest

DURANGOKO AZOKA Durangoko Azokak 'Kulturaren Jaialdia' lerroburua erabiliko du aurrerantzean, urtero lelo berri bat erabili beharrean; Iratxe Reparazek garatu du iruditegi berria eta unibertso bisual osoa aurkeztu dute aste honetan

Aritz Maldonado DURANGO
Durangoko Azokak 60 urteko jarduna egingo du aurtengo edizioagaz, baina urteurrena ospakizun bakar batean egin beharrean, urte hauetan guztietan garatutako ibilbidean ipiniko du arreta. "Urteurren seinatu honetan ere, ospakizun handietan indarra galdu ordez, honaino ekarri gaituen egiteko moduari eutsi eta berrikuntza batzuk txertatuko dizkiogu Azokari", azaldu du Beñat Gaztelurrutia Gerediagako koordinatzaileak prentsaurrekoan. Aurretik, uztailean zendu zen Izaskun Ellakuriaga lankide izandakoa izan du gogoan; hogei urtez euskal kultura bultzatzeko eginiko lana gogoratu eta aitortuko diote abenduaren 5etik 8ra egingo duten Durangoko Azokan.

Beste nobedadeetariko bat mezua eta iruditegia izango dira. Urtero lelo berria aldatu beharrean, aurrerantzean Kul-



Durangoko Azokako eta Gerediagako kideak, eta ordezkari politikoak.

turaren Jaialdia lerroburua izango du Durangoko Azokak. Unibertso bisualaz Iratxe Reparaz arduratu da. Azokak "egin duen eta egiteko duen ibilbidea" oinarri hartuta garatu du unibertso bisual berria.

Gaztelurrutiak, bestalde, Palestinako herria Azokan presente egongo dela nabarmendu du: "Prestaketan zein azokako egun guztietan genozidioa behin betiko geratzeko deia egingo dugu".



Irene Basagoiti (eskuman) Galdakaoko saioan. BERTSOZALE ELKARTEA

Altube anaiak, Bizkarra eta Pagonabarraga, finalerdietan

BERTSOLARITZA Lehenengo faseko bost saioen ondoren, Bizkaiko Txapelketako finalurrekoak erabakita geratu dira

A. M. DURANGALDEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalurrekoak erabakita geratu dira lehenengo faseko bost saioen ostean. Finalurrekoetako lehenengo hiru saioetan, Aitor Bizkarra, Bittor Altube eta Txaber Altube abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarra egongo dira. Bere saioa irabazita, Durangaldeko Bertso Eskolako kidea den Irune Basagoiti ermuarrak ere lortu du bigarren fasera sailkatzea. Finalurreko fasean itzuli bi egongo dira. Lehenengo itzulian hiru saio egingo dira eta bertako irabazleak zuzenean iga-

roko dira bigarren bueltara; gainerakoak, puntuazioaren arabera. Hamabi bertsolari arituko dira bigarrenen itzulian, seina saio. Saio bi horietako irabazleak zuzenean sailkatuko dira finalera, eta gainerakoak puntuazioaren arabera.

Lehenengo itzuliko finalurrekoetariko bat Abadiñon izango da, azaroaren 2an. Aitor Bizkarra eta Bittor Altubek abestuko dute bertan. Finala Bilboko Casillan izango da, abenduaren 20an. Saio guztietarako sarrerak bertsosarrerak.eus atarian erosi daitezke.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJICA BEHARGINA

Folkloreari gorazarre

Astelehen zaporeko martitzenarekin hasi duzu astea. Bart erantzitako buruzapiak arrastoa utzi dizu oraindik belarriostean. Urtean behin ateratzen duzu plantxa armairutik: San Fausto bezperan. Oin puntak minduta dauzkazu abarketek eragindako urradurekin. Alkandorako botoia josi zenuen aurrekoan, argazkietan itxuroso agertzeko. Ezpainak amantalaren kolorez margotu, eta paparra puztu samar atera zara kalera.

Fandango bat osorik sekula dantzatu bakoa zara. Buruzuriak arrotzak zaizkizu eta ez dakizu alkandora gonaren azpitik edo gainetik jantzten den. Baina zuk, eguazten arratsaldeetan dantzara zihoazen ikaskideak inbidiaz begiratzen zenituen horrek, ondotoxo dakizu Don Omar, Shakira, Chayane eta Coyote Dax-en aurretik mugitzen zenuela ipurdia Txulalarekin Ikastolako plazan. Gorputzak memoria dauka eta zureak ondo oroitzen ditu garaiko melodiak. "Patxikotxu dantzari

alaia" zela kantatzen zenuen umetan, eta Pantxike Txosnagunean ezagutu zenuen geroago.

Artopilak folklorea dira Durangon. Larrain dantza eta txistulariak ere bai. Baita Surrandiak, zapi urdinak eta erreka jaitsiera ere. Ez dugu geure burua engainatuko: barrakak eta karrozak folklorea dira gure herrian.

Itxurosa atera zara argazkietan. Garaiko andrak ez bezala, amantala garbi eta abarketak zuri-zuri. Lagunek ere jantzi dituzte haien jantzirik ederrenak. Garaiko

**"EZ DUGU GEURE BURUA
ENGAINATUKO: BARRAKAK
ETA KARROZAK
FOLKLOREA DIRA
GURE HERRIAN"**

gizonek ez bezala, esku leun eta garbiekin heldu dizu lagunak gerritik argazkiaren instantean.

Folklore Ikastolako akorduak dira. Garaiko kantuak eta berbakera. Baina folklorea izan daiteke Paella Txapelketa Txosnagunean. Edo abarketa zuriak, edo tortilla kozinatzea Landakon. Folklore izan dadila performatzera garamatzen hori. Sasi-baserritarrez jantzita, euskaldunak ez diren jakiak prestatzen edo gaupasa eginda "Aupa Durango, Dingi-Dango" kantatzea Goienkalen.

"Marijane, dantza zan, hik dakinan moduan, ororen aitzinean" dio Txosnaguneko eszenatokiko pankartak. Amari zutaz erditu zenean Oskorriren kasete hura oparitu zioten emaginek. Dantza dezagun bada, folklorearen alabok, guk dakigun eta nahi dugun bezala. Biba Marijane, Maurizia eta Pantxike! Eta biba Reder, La Fulana eta Euskoprincess!

DURANGOKO JAIK 2025

URRIAK 17

17:00 Txiki Rock Euskal rockaren kanturik esanguratsuenak familia osoaren neurrira, Andra Mariko elizpean.

17:00 Baloi Eseriko txapelketa merkatu plazan.
Ant.: Torneos Durango.

19:00 Tortilla txapelketa txosnagunean.
Sari banaketa 20:30ean.

19:00 Pilota Fest Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Nesken pala gomazko Bizkaiko klubaren arteko txapelketa: Durango – Olgetan. Ander Martin Estenaga Durangoko Pelotazale Klubeko entrenatzaile izandakoari omenaldia. Ondoren, pilota partidua: Titin III eta Ander Antxia – Unai Agirrezabal eta Mikel Goñi.
Sarrerak: 10 euro. Salgai: Urrats Kafetegian, Alex Taberna, Mesoi Tabernan eta frontoiko leihatilan. Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba.

19:30 Fanfarreen kalejira norgehiagoka berotzeko: Sugarri fanfarrea Otamotzenatik, Herria auzo elkarteak lagunduta. Gazteleku txaranga Madalenatik, Auzo Alaiak lagunduta.

20:00 Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: Zezili, Bogoroditsie, Astarloa Otxotea eta Izar Gaztea.

21:30 Fanfarreen arteko norgehiagoka Andra Mariko elizpean.

22:00 Kontzertuak txosnagunean: Ødei, Streetwise eta Les Testarudes.

22:00 Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: Irune Basagoiti, Unai Iturriaga, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita eta Miren Artetxe. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal. Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

23:00 Kontzertua Ezkurdin: Gatiburen azken bira.

URRIAK 18

MOZORRO EGUNA
Etzera eguna txosnagunean. Txosnetako mozorroaren gaia: ipuinak eta kondairak

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

11:00–14:00 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00–14:00 Haur tailerrak. ASEBIER elkartearen eskutik Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:00 Xake txapelketa federatu bakoentzat Ezkurdin. Izen ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago edo *ajedrez*.

durango@gmail.com
Ant.: Larrasoloeta Xake Taldea

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Kalejira trikitilariekin Txiri-txiri taldearen eskutik.

12:00 XVI. Patata tortilla txapelketa Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gorakoak. Plazak zozketa bidez banatuko dira, irailaren 30ean.

13:00 Aperitibo musikatua Luhartz taldeagaz Andra Mariko elizpean.

15:00 Elkartasun bazkaria txosnagunean. Ant.: Txosna Batzordea.

16:00–19:00 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

16:00 Kontzertua txosnagunean: Heitxi eta Alain.

18:00 Kalejira Sugarri fanfarreagaz.

18:30 Aireko akrobaziak eta zirkua disko musikaren erritmora Pakipaya konpainiaren “Shake shake shake” ikuskizun sarituagaz Ibaizabal parkean.
Euria bada, ikuskizuna bertan behera geratuko da.



Durango Mozorro Eguna

Jaien bigarren asteburua mozorroak prestatzeko momentua da. Zapatu arratsaldean desfilea izango da. Madalenatik Andra Mariko elizpera, 18:30ean.

18:30 Mozorro desfile koloretsua. Batu taldetxo bat eta parte hartu Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Amaieran, sari zozketa mundiala.
Euria bada, Andra Mariko elizpean. Izen ematea urriaren 1etik 17ra www.durango-udala.eus webgunean.

20:00 Erromeria Luhartz taldeagaz Andra Mariko elizpean.

21:30 Kontzertua txosnagunean: Maruxak eta Akerbeltz erromeria.

23:00 Nuevo Versailles orkestra Ezkurdin.

23:00–02:00 Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa Landako Gunean (txosnagunean).
Ant.: Mankomunitateko Drogamenpeketasunen Prebentziorako Arloa.

URRIAK 19

07:00 Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

07:30 Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00 Arku-tirorako Txapelketa Landako Gunean: Bizkaiko lehen Raus autonomikoa eta San Faustoko arku-tiro txapelketa.
Ant.: Durangoko arkulariak.

11:00 Nesken eta mutilen San Fausto XIII. Padel Txapelketako finalak Landako kiroldegian. Antolatzailea: Padelzaleak.

11:30–14:30 Txikientzako parkea Landako eskolan.
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

11:30–14:30 Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

12:00 Makillaje tailerrak Otamotzena Parkean.

12:00 Poneyak eta zaldiak Tabira parkean.
Euria bada, ez da egingo.

12:00 Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

12:00 Marrazki Lehiaketako sari banaketa San Fausto auzoan.
Ant.: San Faustoko auzo elkarte.

12:30 Herri kirolak Ezkurdin: Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Bihurri, Goizeder Baltza, Udane Ostolaza, Karlos Aretxabaleta, Ainhoa Larrinoa eta Aratz eta Enara Beltza ume aizkolariak.
Euria bada, Landako Gunean.

12:30 Taberna ibiltariagaz kantu saioa udaletxeko plazan.

17:00 Animazioa trikitiagaz pertsona nagusien egoitzetatik.

17:00 Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L'Atelier dantza eskolaren eskutik Ezkurdin.

17:30 Clowna, aireko akrobaziak, ekilibrismoa eta barreak Otamotzena parkean Rojo Telón taldeagaz. Euria bada, Nevers ikastetxean.

18:00 Gozatu zinearen historiako kantarik goxoenen Zinema Paradise saioan, Andra Mariko elizpean.

18:30 Kalejira Dunbots fanfarreagaz Alde Zaharretik.

19:30 Patxikotxuri eta jaiei agur esateko kalejira udaletxeko plazatik hasita tren-kotxera zaharretaraino.

20:00 Jaien amaiera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan.

URRIAK 25

20:00 Durango Txistu Kontzertua 2025 Landako Gunean. 30. Urteurrena.
Ant.: Silbaberri Txistu Elkartea.

URRIAK 26

08:00 Durangoko II. Mendi Martxa. Izena emateko: www.kirolprobak.com
Ibilbide luzea (25 km.): Irteera (Landako Guneatik): 08:00
Ibilbide laburra (14 km.): Irteera (Landako Guneatik): 09:00. Ant.: Alpino Tabira Mendi Kluba.

10:00 Mañaria ibaiaren garbiketa. Hasiera: Pinondo parkean.

12:00 56. Umeen Euskal Jaia. Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdi plazan. Euria bada, Landako Gunean.
Ant.: Tronperri Dantza Taldea eta Txoritxu Alai Dantza Taldea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 17

ABADIÑO Erakusketa
'Naturari so' Durangaldeko Artisten Elkarteko talde erakusketa.
Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra arte.

BERRIZ Erakusketa
Andikoa auzoko argazki zaharrak.
Kultur Etxean, urriaren 26ra arte.

DURANGO Erakusketa
Aratz Azpiriren lanak.
Ezkurdi aretoan, urriaren 26ra arte.

DURANGO Erakusketa
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza'. Europako Ondare Jardunaldiak.
Arte eta Historia Museoa, azaroaren 16ra arte.

DURANGO Erakusketa
'Goren Sakona' (Ros Boisier).
Arte eta Historia museoa, azaroaren 16ra arte.

ELORRIO Bisita gidatua
'Solatsu Telleria, XVII. Mendeko baserria'. Bisita gidatua eta erakustaldia euskaraz. Europako Ondare Jardunaldiak. (Izena ematea: 634 735 292 / info@solatsu.com).
San Agustín auzoa 50 (12:00- 13:30).

ELORRIO Erakusketa
Elorrioko Argazki Taldekoen lanak.
Iturri kultur etxean, urriaren 24ra arte.

ELORRIO Erakusketa
Eskulturak Elorrioko Kaleetan.
Iturri kultur etxean, azaroaren 30era bitartean.

ZAPATUA 18

ABADIÑO Ahozko kontakizuna
'Venezuelako eta munduko ipuinak' (Marisol Abreu). Gero, solasaldia. ReEncontroMoNos egitaraua.
Errota kultur etxean, 19:00etan.

ELORRIO Bisita gidatua
'Basilikaren barrenak: ondare arkitektoniko erlijiosoa'. Europako Ondare Jardunaldiak. (Izen ematea: 94 682 01 64 / 688 776 270 / turismoa@elorrio.eus).
Udaletxean (11:00-12:30).

BERRIZ Ikuskizuna
Semaforoa, gaur egun bizitzeko ditugun erritmo eta ohiturei buruzko hausnarketa eragingo duen lana erakutsiko du Logela Multimedia, Berrizen. Eneritz Garcia eta Unai Eleizalde dira Amets eta Eneko protagonistak.
Urriak 17, barikua, Kultur Etxean, 17:00etan.

ELORRIO Bisita gidatua
'Solatsu Telleria, XVII. Mendeko baserria'. Bisita gidatua eta erakustaldia gaztelaniaz. Europako Ondare Jardunaldiak. (Izena ematea: 634 735 292 / info@solatsu.com).
San Agustín auzoa 50 (11:00- 12:30).

IURRETA Bisita gidatua
'Hilerriaren arkitektura'. Europako Ondare Jardunaldiak. (Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com).
Aita San Migel plazan (11:00-12:30).

IURRETA Bizikleta irteera
Gellao-Untzilla. Txirrindulari Elkartea.
lurretan, 09:00etan.

MAÑARIA Bisita gidatua
'Kirikiño-tik Kirikiñora'. Europako Ondare Jardunaldiak. (Izen ematea: 94 621 65 55 / info@hontzamuseoa.eus).
Hontza Museoa (11:00-12:30).

OTXANDIO Bisita gidatua
'Elur-zuloak eta hauen istorioak'. Europako Ondare Jardunaldiak. (Izen ematea: 94 681 41 55 / urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus).
Udaletxean (10:00-14:00).

ZORNOTZA Antzerkia
'Susto' (Maite Guevararen konpainia).
Zornotza Aretoa, 20:00etan.

DOMEKA 19

ELORRIO Bisita gidatua
'Gurutzebidea: ondare arkitektoniko erlijiosoa'. Europako Ondare Jardunaldiak. (Izen ematea: 94 682 01 64 / 688 776 270 / turismoa@elorrio.eus).
San Agustín elizan (11:00-13:00).



LOGELA MULTIMEDIA

IURRETA Bizikleta irteera
Arratiara irteera. Txirrindulari Elkartea.
lurretan, 09:00etan.

MALLABIA Bisita gidatua
'Baserrien arkitekturaren aldaerak'. Europako Ondare Jardunaldiak. (Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com).
Done Joanes ermitaren aparkalekuan, Zengotita auzoan (11:00-12:30).

OTXANDIO Erakusketa
XXXV. Perretxiko Erakusketa. (Kementsu eta Mirugain elkarteak).
Plazan (11:30-14:30).

OTXANDIO Jaia
Galeuskal Jaia. Udazkeneko nekazaritza eta artisautza azoka (11:30-14:30). Umeentzako jolasak eta aurpegi margotzea, 12:00etan. Olagarro dastatzea, 12:00etan. Galiziako gaiteroak eta ardo dastatzea, 12:00etan. Aire Eire, 19:00etan.
Plazan.

ASTEHENA 20

ELORRIO Berbaldia
'Palestina: urriak 7tik Trumpen planera'. (Hizlaria: Taher Ali, Palestinar Ateneoko kidea).
Iturri kultur etxean, 18:30ean.

EGUENA 23

ATXONDO Berbaldia
'Aurretiazko borondateak'. (Hizlaria: Iñaki Intxausti).
Eskola zaharretan, 17:30ean.

BERRIZ Musika
Bala (Besta).
Kultur Etxean, 21:00etan.

DURANGO Antzerkia
'Jo!' (Badut Teatro & Magma Mia).
San Agustín kulturgunean, 19:00etan.

MAÑARIA Ipuinak
'Erdi ipuinen abarora' (Oihana Etxegibel ipuin kontalaria).
Liburutegian, 18:00etan.

BARIKUA 24

ABADIÑO Kontzertua
Kontzertu akustikoa: Berun.
Gaztetxean, 21:00etan.

ABADIÑO Drag Bingoa
Albina Stardust eta Divina Comedia.
Zelaietako Jubilatuen tabernan, 19:00etan.

DURANGO eskulanak
Paperezko elektronika tailerra (Mabel de la Fuente).
Otamotzena auzogunean, 17:30ean.

ELORRIO Dantza
'Averno' (Mercat Dance konpainia).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ipuinak
'Lotaldia'. Ipuin kontaketa eta kontzertua (Peru Magdalena eta Ibonrg).
Herri bibliotekan, 18:00etan.

MALLABIA Kontzertuak
Beranduegi + Dj Marrazo.
Parkean, 22:00etan.

ZINEMA

ABADIÑO

ERROTA KULTUR ETXEA

Film Sozialak. Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia
Barikua 17: 19:00.

BERRIZ

KULTUR ETXEA

El cautivo
Domeka 19: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Karmele
Barikua 17: 20:30.
Zapatua 18: 19:00, 21:30.
Domeka 19: 19:30.
Astelehena 20: 19:30.
Martitzena 21: 19:30.
Eguaztena 22: 19:00.

La vida de Chuck
Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 19:00, 21:30.
Domeka 19: 19:30.
Astelehena 20: 18:00, 20:15.
Martitzena 21: 18:00, 20:15.
Eguaztena 22: 19:00.

La casa de muñecas de Gabby
Barikua 17: 18:00, 20:30.
Zapatua 18: 16:45, 19:30, 21:30.
Domeka 19: 17:00, 19:30.
Astelehena 20: 18:00, 20:15.
Martitzena 21: 18:00, 20:15.
Eguaztena 22: 19:00.

Dolores Ibarruri. Pasionaria.
Barikua 17: 18:00.
Zapatua 18: 17:45.
Domeka 19: 17:45.
Astelehena 20: 17:45.
Martitzena 21: 17:45.

Capitán diente de sable
Zapatua 18: 16:45
Domeka 19: 17:00.

OTAMOTZENA AUZOGUNEA

No other land
Eguena 23: 18:00. Ondoren, solasaldia, Durango Palestinaren eskutik.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Maspalomas
Zapatua 18: 20:00.
Domeka 19: 20:00.
Astelehena 20: 20:00.

Cómo entrenar a tu dragón
Domeka 19:17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Karmele (J.B.G.A.)
Barikua 17: 20:00.
Domeka 19: 20:00.
Astelehena 20: 20:15.

El colegio de los animales mágicos 3
Domeka 19: 17:00.

Romería
Martitzena 21: 19:00.

"Inor ez da kapaz Goñiren ikuskizuna emateko"

ANDER ANTIXIA ETA UNAI AGIRREZABAL PILOTARI OHIAK

PILOTA Gaur zuriz jantziko dira berriro jaien barruko partidu berezi bat jokatzeko. Titin III.a eta Mikel Goñi izango dituzte bikotekide. Sarrera asko saldu da eta giro ederra itxaroten da

Joseba Derteano DURANGO

Dena prest dago gaur 19:00etan Ezkurdi Jai Alain hasiko den jaialdirako. Ander Antxia Pagaldaik (Abadiño, 1980) Titin III.agaz jokatu du, eta Unai Agirrezabal Unamunzagak (Durango, 1989) Mikel Goñigaz. Ikuskizuna segurtatuta dagoela diote. Jaialdiaren barruan Ander Martin gogoratu eta omenduko dute. Urte askoan Durangoko Pelotazale Klubeko entrenatzailea izan zen. **Inoiz jokatu duzue Titinegaz edo Goñigaz?**

Unai Agirrezabal: Euregaz ez, baina Titinen kontra bai, behin. Orain zazpi bat urte izan zen, Durangoko San Fausto jaietan. **Ander Antxia:** Nik Goñigaz behin jokatu nuen, orain 15-20 urte, trinketean.

U.A.: Eta behin jokatu dut Anderren kontra. Orain bederatzi bat urte izan zen, Burgosko Pancorbo herrian, udako jaietan. **Titinek 56 urte ditu. Eutsiko ote dio partiduko erritmoari?**



Unai Agirrezabal eta Ander Antxia, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

A.A.: Badu adin bat, bai, baina garrantzitsuenak da lehen ondo zekiela tantoa amaitzen eta orain ere jakingo duela. Bere fisikoak ez dit ardura. Neuk egingo dut arineketan, berak tantoak amaitzen baditu.

Unai, zeu ibiliko zara aurrelari eta zeuri egokituko zaizu Titinen gantxoak eramatea.

U.A.: Neuri tokatuko zait alde-rik alde korrika ibiltzea! Batzuk sartzen badizkit ez dit ardura, ikuskizuna ona bada.

Zer sasoitan etorriko ote da Goñi?

U.A.: Ez dakit, baina biok geure onena emango dugu, dudarik barik!

A.A.: Ez dakit udan Mikelek beste partidu jokatu duen pilotaririk badagoen. Partidu asko jokatu du. Orduan, ondo etorriko dela uste dut.

Fisikoki hobeto edo txartoago, Mikelek beti pizten du ikusmina?

U.A.: Seguru ikuskizuna eman- go duena.

A.A.: Beste inor ere ez da kapaz Goñiren ikuskizuna emateko. Ez dago hoberik jendea frontoi- ra erakartzeko. Esango nuke gaur egun Altuna eta Goñi di- rela frontoira jenderik gehien eramaten duten pilotariak. Mikelek beti betetzen du frontoia, Euskal Herrian zein kanpora joan izan denetan.

Pilota goxuagaz jokatzek ikuski- zunari laguntzen dio?

U.A.: Baietz esango nuke. Ander eta biok bigunagaz jokatzera ohituta gaudu. Pilotari ohi batzuk eguenero batzen gara San Fausto frontoian, izerdi apur bat botatzeko. Zazpi bat batzen gara orain bi-hiru urtetik.

Sarrera asko saldu ei da.

U.A.: Albiste ona da. Horixe zen helburua, ahalik eta jenderik gehien batzea. Gainera, Ander Martinen omenaldia denez, horrek ere jendea erakarri duela uste dut.

A.A.: Ander San Faustora etor- tzen zenetariko bat da.

Nork irabaziko du?

A.A.: Guk, dudarik barik. Unai jakitun dago, badaki galdu egin- go dutela, tanto bategaitik edo bigaitik bada ere (barreak).

U.A.: Ez dauka arrazoirik. Nik neure alde egingo dut: 22-20, geuk irabazi. Batera zein beste- ra, ikuskizuna segurtatuta dago. **Zelakoa zen Ander Martin eta ze- lakoa ekarpena egin zion pilotari?**

A.A.: Ander pilotaren sinonimo zen. Euskadiko Pilota Federa- zioan lan handia egin zuen. Ander eta Kepa Arroitauregi asko borrokatu ziren euskal selekzioaren alde. Pena da se- lekzioa ofizialki lehiatzen hasi denean biek euren lanaren frui- tuagaz ezin gozatzea. Trinketean Tornosolo klubeko presidentea ere izan zen, Keparen ondoren. **Durangoko Pelotazale Klubagaz lotura izan zuen.**

U.A.: Bai, ni klubeko presiden- te nintzela bera entrenatzaile ibili zen. Lan itzela egin zuen pilotaren eta euskal selekzioaren alde. Kantxa barruan legez, han- dik kanpora ere borrokalaria izan zen. Kuriositate legez, nik pilotan zuriz jantzita jokaturiko azken partidua beragaz izan zen, Bizkaiko herri artekoan.

"ANDER MARTINEK LAN ITZELA EGIN ZUEN PILOTAREN ETA EUSKAL SELEKZIOAREN ALDE"

Domekan nazioarteko krosa lehiatuko dute Zornotzan

KROSA Goi mailako korrikalariak batuko ditu, emakume zein gizonetan. Lasterketa herrikoia ere egingo dute

J.D. ZORNOTZA

Domekan goi mailako krosariak ikusteko aukera dago Zornotzan, nazioarteko krosaren 71. aldia lehiatuko baita Jauregibarria- ko landetan. Aurreko aldietan legez, World Athletics Cross Country Tour Gold zirkuituaren barruko proba izango da. Ho- rrela, Zornotzako hitzorduak erreferentziatzeko proba izaten jarraitzen du udazkeneko den- boraldian.

Lehenengo, eskola kategorie- tako lasterketak izango dira. Emakumeen elite mailako pro-

ba 12:15ean hasiko da, eta gizo- nena 13:00etan. ETB1ek zuzenean emango ditu lasterketa biak, eta Teledporte kirol kanalak (RTVE) hainbat emanaldi bo- tako du ekitaldiaren hurrengo astean zehar.

Herri lasterketa misto bat eta aniztasun funtzionala duten at- letentzako probak ere egingo dira, ekitaldiaren izaera inklu- siboa eta parte hartzailea berre- tsiz. "Zornotzako krosa herriko nortasunaren parte da. Gainera, ekitaldi honek munduko atle- tismoaren mapan kokatzen gai-

tu urtero, eta, aldi berean, in- klusioa, parte-hartzea eta kiro- lagazko konpromisoa indartzen ditu", adierazi zuen Ainhoa Salterain alkateak eguazteneko prentsaurrekoan.

EMAKUMEEN ELITE MAILAKO LASTERKETA 12:15EAN HASIKO DA , ETA GIZONENA 13:00ETAN

Trafikoan eragina

Krosa dela eta, udalak behin-behi- neko zenbait neurri hartuko du ibilgailuen trafikoari dagokionez. Esaterako, egunean bertan ezin- go da Jauregibarriako eremura ibilgailuz sartu 14:00ak arte.



Ekimeneko parte hartzaileak eta udaleko ordezkariak, aurkezpenean.



Korrikalariak Zubiondo parkean lasterketa hasteko zain, iazko aldian. ZORNOTZA MENDI TALDEA

Mendi martxa nobedade Aramotz lasterketan

MENDI LASTERKETA Zapatuan Aramotz Mendi Lasterketaren 13. aldia lehiatuko dute Zornotzan, Zubiondo parkean irtenda. Ekimenak 300 parte hartzailetik gora batuko ditu eta eurretako erdiak aurten lehenengoz antolaturiko mendi martxan ibiliko dira

J.D. ZORNOTZA
Durangaldeko mendi lasterketen zirkuitua azken-aurreko gelto-kira helduko da zapatuan, Aramotz mendi lasterketaz. Zornotzakoaren ondoren, Elorrioko Aldapegora baino ez da geratuko, urriaren 25ean.

Aramotzek aspaldiko parte hartzaile kopururik handiena izango du; lasterketaz gainera, mendi martxa ere antolatu dutela da horren arrazoia. 150 bat lagunek izena eman dute martxan. "Oso ibilbide polita da eta mendiaz gozatzeko beste aukera bat

eskaini gura genuen", esan du Zornotza Mendi Taldeko Igor Lopezek. Martxak 17 kilometro izango ditu, 08:30ean hasiko da, Zubiondo parkean, eta 150 lagunek eman dute izena.

Lasterketa 10:00etan hasiko da eta 163 korrikalari lehiatuko

dira, 2024an baino 30 bat gehiago. Iaz, hainbat arrazoi tarteko, mendi lasterketa biak —17 eta 27 kilometrokoak— erdibideko batean batu zituzten eta aurten 22 kilometroko ibilbidea errepikatuko dute. "Oso harrera ona izan zuen", gogoratu du Lopezek. Korrikalariak Aramotzeko mendilerroan ibiliko dira. Artaun auzoaren parera heltzen direnean hartuko dute buelta. Pagozelai, Urtemondo eta Belatxikieta izango dira lasterketako tontorrak.

Faboritoak

Gizonetan Gontzal Murgoitio da irabazteko hautagai nagusia. Skyrunning Munduko Kopako lasterketan sekulako maila ematetik dator elorriarra. Iaz Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak irabazi zuen eta berriro irabazten ahaleginduko da. Emakumeetan, Itsasne Urkiaga zornotzarra, Nora Narbaiza zaldibartarra, Lola Oyarzabal gasteiztarra eta Leire Uribe otxandiarra nabarmendu daitezke.

Zornotzakoa Durangaldeko Koparen barruko proba da. Kopa amaitzeko lasterketa biren faltan, Irazu Aranburu mallabitarra dago lider gizonetan, eta Ander Jauregi durangarra bigarren. Aranburuk Aramotzeko lasterketa amaitu eta puntu bat batzea nahikoa du Kopa matematikoki irabazteko. Emakumeetan kontuak estuago daude eta gorago aipatutako lau izenek txapeldun geratzeko aukera dute oraindino.

"Fisikoki inoiz ez naiz hain ondo sentitu"

Gontzal Murgoitio bere ibilbideko sasoirik onenean helduko da Aramotzera. Joan zen asteburuan bosgarren amaitu zuen Skyrunner World Serieseko Mourn Skyline lasterketan, eta aurrerago amaituko zuen okerreko bidea hartuta 15 minutu galdu izan ez balitu. "Errendimendu aldetik inoizko mailarik onena eman dut; fisikoki inoiz ez naiz hain ondo sentitu", esan du 24 urteko elorriarra. Gorakada hau aldaketa batzuen ondoren etorri da. Udaberrian "sentsazio txarraz" eta "konfiantzarik barik" zebilen, eta prestatzailea eta nutrizionista aldatu zituen. Orain Ander Garmendia du entrenatzaile, eta Igone Campos nutrizionista.



Murgoitio Irlandan.



JOKALDIA

IÑÁKI IZA ZARAZUA PILOTARI OHIA

Udaosteko balorazioa

Pilotako udako sasoiak urtero bide ematen du zaleon hausnarketarako. Baina pilotak ez du etenik eta aurten ere San Mateo feria bukatzerako ia hasi da lau eta erdiko txapelketa, elkarrekin estropezu eginez bezala. Har dezagun, bada, tarte txiki bat udak emandakoari buruzko azaleko errepasoa egiteko.

Masters Caixabank torneotik hasiko naiz. Binakako txapelketa nagusiaren senide txikia. Udaldia zeharkatzen duen ardatza. Urte gutxian zaleon interesa piztu duen lehiaketa, non uztail eta irail bitarteko bikote erregularrena erabakitzen den.

Eta Mastersarekin batera, ezinbestean, Jon Mariezkurrena aipatu behar dut. Hirugarrenez irabazi du txapela, eta udako binakako espezialista nagusia dela berretsi du. Hala ere, neguko binakako txapela jantzi ezinik jarraitzen du nafarrak.

Bestalde, bitxikeriaren bat edo beste ere ikusi dugu hilabeteotan. Denen artean nabarmenena Altuna-Ezkurdia bikotea izan daiteke. San Mateo ferian lehiatu ziren eta txapelketa nagusian Aspek atzelariarekin duen hutsunea betetzeko ganorazko alternatiba izan daitekeela egiaztatu zuten.

Baina berrikuntza guztien artean B Serieko torneoak gustatu zaizkit gehien. Normalean goi mailan jokatze-

"MASTERSAREKIN BATERA MARIEZKURRENA AIPATU BEHAR DUT. HIRUGARRENEZ IRABAZI DU TXAPELA"

ko aukerarik ez duten pilotariei beharrezko ikusgarritasuna eta garrantzia eman zaizkiela deritzot. Hala, besteak beste, Ugartemendiak, Muruak, Lizeagak, Egigurenek, Gabirondok eta Eskuzak torneo garrantzitsuen palmaresetan idatzi dituzte beraien izenak.

Horren guztiaren ifrentzuan, aldiz, jaialdi kopurua dago. Kasu honetan, diagnostikoa egiteko lagin egokiak izan daitezke abuztuaren 15erako antolatutako festibalak. Izan ere, urte askoan Andra Mari eguna izan zen esku pilotako jaialdien programazioen puntu gorena. Aurten 3 jaialdi baino ez ziren antolatu; horietatik bi, gainera, partidu bakarrekoak. Hau da, 43 pilotaritik 16k bakarrik jantzi zituzten praka zuriak abuztuaren ekuatorean. Kontuan izanik orain dela ez asko egun horretan 30na pilotari inguruko bi enpresetako pilotari guzti-guztiek jokatzen zutela... Atera kontuak.

GUARDIAKO BOTIKAK

URRIAK 17, BARIKUA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 18, ZAPATUA
09:00-09:00
Navarro, Artekalea 6 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 19, DOMEKA
09:00-09:00
Etzebarria, Montevideo etorb. 2 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
URRIAK 20, ASTELEHENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URRIAK 21, MARTITZENA
09:00-09:00
De Diego, Intxaurrondo 22 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URRIAK 22, EGUAZTENA
09:00-09:00
Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza
URRIAK 23, EGUNA
09:00-09:00
Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Melero, San Pedro 31 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK

Urte askotarako!

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaitez Anbotoren ordezkaritza edo deitu 946 232 523 telefonora.

HAMABOSTEAN BEHIN, JASOTAKO ZORION-AGURREN ARTEAN **GOZATU GOZOTEGIKO TARTA BAT ZOTZ EGINGO DUGU**. ZOZKETAN PARTE HARTZEKO BIDALI KONTAKTURAKO DATUAK ZORION-AGURRAREKIN BATERA.



GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

ESKELAK JARTZEKO:

946 816 558
edo *anboto@anboto.org*

► Banakako Oroigarria edo Esker ona
Anboto Paperean edo webgunean: 75 €

Anboto kideendako 65 €

► Banakako Oroigarria edo Esker ona Anboto Paperean
eta webgunean: 115 €

Anboto kideendako 105 €

OROIGARRIA

OROIGARRIA



AITOR URIBE MUERZA "Karatxe"

1. URTEURRENA

Bizitzan zoriontasuna nola bilatu erakutsi zenigun. Ez dugu zure maitasuna ta umore ona sekula ahaztuko. Gure bihotzetan izango zara

- Etxekoak betirako -

Mallabian, 2025eko urriaren 17a.





Urkioil gasolindegia ibilgailuetarako aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

INMOBILIARIAK



ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA 3 logela. Garajea eta trastelekua. **282.000 €**-tik aurrera.

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **387.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

Durango: 50 m2. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C:E:E=E 130.000 €.**

San Inazio: Garajea. **11.000 €.**

Alluitz: Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehia 2 kaletara. **110.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Erretentxu: 85m2. 3 logela eta sukaldea. Balkoia. Eguzkitsua. **C.E.E=E 275.000 €** Garajea aukeran 8.000 €

Mañaria: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. **C.E.E=E 200.000 €**

Juan de Olazaran: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Jantzia. **C.E.E=B 382.000 €**

Durango: Erdi-banatua. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**

Baserria, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E:E=F**

Izurtza: Baserria. BERRIZTATZEKO: Lursailarekin. **C.E.E=G 198.000 €.**

Abadiño: Gaztelua. Salgai 866 m2-ko lursail laua. **35.000 €.**

Muntsaratz: Baserria. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

LOKALAK SALGAI

Durango: 100 m2-ko lokala. Alde zaharra. Egokitua. **115.000 €.**

Maspe: 150 m2-ko lokala. **90.000 €**

Juan Mari Altuna: 100 m2. Egokitua. Kearentzako irteera. Alokairuan.

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Iurreta: Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €.**

Astepe: 40 m2-ko lokala. **70.000 €**

Askatasun etorbidea: 60 m2. Lokal egokitua. Kearentzako irteerarekin. **125.000 €.**

Abadiño: Pabilioia. 172 m2. Bulegoa, aldagelak eta komunak. Alokairuan edo salgai. **170.000 €.**

Durango: Bulegoa. Erdialdean. Lehenengo solairua. **650 €.**



ETXEBIZITZAK SALGAI DURANGO

Goienkalea: Apartamentua. 60 m2. Berriztatzeko. **125.000 €**

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEIAK SALGAI

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserria.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



DURANGO Askatasun Etorbidea: 63 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna dutxarekin. Berrikuntzak behar ditu (lehiok aldatuta) Birbanatzeko aukera ematen du. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du, iparraidea. Argitsua eta etxebizitza altua. Zonalde lasaia, berdegunez inguratuta. ITE-a pasatuta.



DURANGO Antso Estegiz: 42,50 m2. BERRIZTATUA. Egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna dutxarekin. Egoera ezin hobean. Exe erdiak kanpora ematen du, iparraidea. Erdigunetik gertu. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.



MATIENA Trañabarren: 94,8m2. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela (horietako bik horma-armairuak dituzte) komuna, bainugela eta despentsa handia leihoarekin. Toldo automatikodun balkoia. 14,25 m2-ko ganbara. Aparteko garaje-partzela erosteko aukerarekin.



BERRIZ Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla horma-armairuarekin, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua dutxarekin eta leihoarekin. Balkoia. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.



EUBA 81,35 m2. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. 35 m2-ko terraza. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-ekialde, hego-mendebaldea). Argitsua. Zonalde lasaia, zonalde berdez inguratuta. Ikuspegi ederrak. Garaje itxia eta trasteleku zabala, etxebizitzatik metro gitxira. ITE-a pasatuta 2017.urtean.



DURANGO

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 € / E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberritzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoia: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserria lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserria lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GARAI

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberritzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 95.000 € ORAIN 80.000 € / E.E.Z=F**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia eta aukera ezberdinak.

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Alluitz: Garaje itxia. **75 € / hilean.**

Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO DURANGON SALGAI

Landako etorbidea: 50 m2-ko lokala. **600 € / hil. / E.E.Z=E**

Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**

Aliendalde: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**

IURRETA

Zubiaurre: 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.

Padureta: 240 m2-ko pabilioia. Salgai: **370.000 €** Alokagai: **1.680 € / hilean.**

Beste aukera batzuk bulegoan galdetu



LAU-HORTZA

MERTXE MUGIKA
BALANZATEGI

Zinema euskaraz

Egun hauetan, Durangaldeko zinema aretoetako karteldegia begiratzeko aritu naiz, eta *Maspalomas*, *Karmele*, *Jone*, *batzuetan* eta *Los domingos* filmak egon dira edo egongo dira ikusgai. Lehen hirurak euskarazko pelikulak dira, euskaraz entzungo ditugu, gaztelaniazko azpitituluekin. Laugarren filma-lanak, oster, dozena erdi izen euskaldun, lau agur eta kantatu bat baino ez ditu euskal-osagai. Eta laurak aurkeztu dira izen labeldun pean: "euskal zinea".

Donostiako Zinemaldia hasi aurretik, antolakuntzakoek harro iragarri zuten 38 euskal ekoizpen proiektatuko zirela, eta euskal zinema inoiz baino indartsuago dagoela. Bada, bai, harro egoteko moduan gaude, euskaraz eta euskaratik ekoiztutako pelikulak gero eta gehiago dira; nazioarteko jaialdietan parte hartu, eta sariak irabazteko moduan ageri dira zerrendetan. Baina, mesedez, arren, otoi, ez deitu euskal zinea Euskal Herrian ekoizten den produkzio guztiari, zeren eta bertoko pizgarri fiskalek zerikusi handia dute euskal zinea izeneko horretan. Bestela, gu geu biziko gara pelikula batean, non zifrek eta sailkapenak errealitatea fikzio bihurtuko duten. Ez gaitzezen geure burua engainatzen ibili, eta gozatu benetako labela ematen digunarekin: Zinema euskaraz!

AKUILUA

"Hareatzan eta uretan etzanda lortu nuen irudia"

ASIER LOPEZ YAÑEZ IRAKASLEA

ANBOTOk antolatu duen udako argazki lehiaketako epaimahaiaren saria irabazi du Durangaldetik kanpoko kategorian, Costa Rican ateratako 'Ur-izar' argazkiagaz

A. Basauri ELORRIO

Asier Lopezek (Bilbo, 1985) beti izan du argazkilaritzarako zale-tasuna, eta azken urteetan animalien argazkigintzan sakondu du (@asierlopez_natura).

Sorpresagaz hartu duzu saria.

Bai. Hainbat bider parte hartu dut, beste argazki mota batzuekin. Ohitura bihurtu da. Baina, orain, kosta pazifikoko Uvita herrian egindako argazkiak aurkeztu nituen. Itsasbeheran sortutako putzuetara jaisten dira limoetako hegaztiak jatera, eta orduan ateratako argazkia da.

Hegaztiak eta animaliak erretratzea gustatzen zaizu.

Txikitatik naturak asko erakarri nau orokorrean; bereziki, animalien munduak. Naturagazko pasio hori argazkilaritzagaz uztartzeak aukera eman dit ingurumena eta animalien portaera hobeto ezagutzeko, naturaren ezagutza sakontzeko. Bide horretan, lagunak egin ditut, tailerretan parte hartu dut eta nire argazkiak sareetan erakusten hasi naiz. Dena dela, beste argazkilariekin hartu-eman eta bizipenak izatea eta leku berriak ezagutzea dut gogokoen. Beste era bateko



"ANIMALIEI ARGAZKIA EGITEKO, ZORTE APUR BAT, PAZIENTZIA ETA EGUNERO SAIAITZEA BEHAR DIRA"

argazkiak ere egiten ditut, baina neuretzat gordetzen ditut.

Gatx da animaliei argazkiak egitea?

Hiru gauza behar dira: zorte apur bat, pazientzia handia eta egunero ahalegintzea. Hegazti hauetariko batzuk asko bildur-

tzen dira. Beraz, apurka hurre-ratu behar da. Denbora eman behar zaie, konfiantza hartzeko. Argazkia animalien altueran ipinita atera behar da, gainera. Pentsa zelan atera nuen, hareatzan eta uretan etzanda!

Zenbat denbora behar izan zenuen?

Ordubete eskas; ez da asko. Baina hondartzan 3-4 orduan egon nintzen hegaztien portaera, eta hondartzaren eta marearen egoera behatzen. Gainera, txoriak txikiak dira, askotan ez daude bistan. Inoiz dena ondo suertatu arren, ez da ohikoa. Egun batean, bestean, hurrengoan... ahalegindu behar da. Bakoitzaren esijentzia maila ere hor dago. Denbora behar da, baina disfrutatutako denbora da.

Espreki argazkiak ateratzera joan zara Costa Ricara.

Bai. Nahiko argi neukan gura nuena, eta asko mugitu nintzen bertan: Karibean, oihan tropikalean... ibili nintzen. Hala ere, Euskal Herrian eta penintsulan ere hainbat lekutan ibili naiz. Azaroan Galloca urmaelara (Aragoi) joango naiz, paisaia eta kurrilo saldoak erretatzera, eta abenduan Camagara (Frantzia), flamenkoak ikustera.

Zein da zure helburua?

Gozatzea. Hortik aurrera, animaliak ezagutzea eta argazkigintzan hobetzea. Animalien portaera islatu gura dut, inguruko espezieak ezagutarazi. Argazki artistikoa ere landu gura nuke.

Atera gura zenukeen argazki bat?

Badaude ezagutu gura nituzkeen tokiak, klima aldaketagaitik galtzeak daudenak. Hartz polarrak eta azeri artikoak dauden Norvegiako alde hori, adibidez. Hainbeste leku izanda, gatx da bat aukeratzea.



CTXANDICKO AZCKA

URRIAK 19 | 11:00
Plazan | 14:30

NEKAZARITZAKO
ELIKAGAIEN
PRODUKTUAK ETA
ARTISAUTZA

HERRI BAT
MERKATU
BAT

